

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
UNIBERTSITATEZ BESTEKO IKASTETXEETAKO
IKASLEEN ESKUBIDEEI ETA BETEBEHARREI
BURUZKO DEKRETUA APLIKATZEKO GIDA**

**ALDERDI OROKORRAK ETA
PROZEDURA ZUZENTZAILEA**



**HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA
HEZKUNTZA IKUSKARITZA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN
INSPECCIÓN DE EDUCACIÓN**

IKASTETXEEI LAGUNTZEKO PROTOKOLOAK



Ikastetxeek beren baitan hartzen dituzte, aldi berean eta bereizketa-aukerarik gabe, bizikidetza-komunitateak eta ikaskuntza-komunitateak. Bizikidetza-komunitate diren aldetik, bake-kultura sustatzeko jarrerak eta trebetasunak landu behar dituzte ikastetxeek, eta haiek kide guztiak giro baikor batean bizi behar dute, elkarrekiko konfiantzan. Lan hori egiteko, funtsezko zeregina dute moral-balioek, elkartasunak, tolerantziak, elkarren errespetuak, konpromisoak, kulturartekotasunak, gizarte-jarrera baikorrak eta giza eskubideek. Halaber, ikaskuntza-komunitate diren aldetik, ahalegina egin behar dute, pertsona guztiak arrakasta lor dezaten. Ikasketek gizarte-balio handia izan behar dute, haurrek eta gazteek aurrera egin dezaten eta efikaziaz eta argitasunez sar daitezten haiei dagokien garapen-bideetan, eta, gerora, helduen bizitzan eta lan-bizitza aktiboan.

Alabaina, bi alderdi horiek, ikaskuntza eta bizikidetza, ezin dira bereizita landu, bikote zatiezina baita. Ez dago bizikidetzarik ikaskuntzarik gabe, ezta ikaskuntzarik ere, bizikidetzarik gabe. Ezin dira pertsonen arteko harreman-arazoak prebenitu, baldin eta ez bada arrakasta sustatzen, eta ezin da arrakastarik lortu, baldin eta ez bada goiko ikasteko giro egokia.

Bizikidetzarako heztea da balioen hezkuntzaren muina, eta heziketa horren ondorioz, pertsona guztiak onartu behar dituzte oinarritzko printzipio moralak, pertsonari, pertsona izate hutsagatik, dagozkien eskubide eta betebeharrak. Bizikidetzaren kulturak ez du onartu behar eta haren aurkaritzat jo behar ditu diskriminazioa, intolerantzia, axolagabekeria, konformismoa eta elkartasunik eza. Gure ikastetxeetako hezkuntza-jarduerak etengabeko ekintza-bultzatzaile izan behar du, hezkuntza-komunitateko kide hezitzaileak (irakasleak eta familiak) ereduak jokabideak eta jarrerak izan ditzaten, eta heziketa hartzen dutenek ere hala joka dezaten, bai baitakigu asko ikasten dela ereduari erreparatuta.

Gizarte-elkarrekintzarako balio, jarrera eta jokabide baikorrak sustatu nahi ditu gure hezkuntza-ereduak, eta, haien oinarrian, giza eskubideen printzipioen onarpena eta indarkeriazko eta diskriminaziozko jarreraren bazterketa finkatu. Hala, kultura demokratiko bat eraiki nahi dugu, parte-hartzailea, tolerantzia eta diferentziak errespetatuko dituen. Eta, kultura horretan oinarrituta, konpromiso eta jardunbide arduratsuak indartu nahi dira, hezkuntza-komunitate osoak beregana ditzan; hau da, irakasleek, ikasleek, familiek eta administrazioko eta zerbitzu-erakundeetako langileek bere egin ditzaten konpromiso eta jardunbide horiek.

Jakin, badakigu, bizikidetzak, maiz, zailtasun handiak dakartzala, eta zailtasun horrek arazoak sortzen dituela. Arazoei aurre egin behar zaie, eta, horretarako, konponbideak bilatu behar ditugu, hori baita arazoizko jokabidea.

Bizikidetzak ikuspegi baikorra izan behar du. Bizikidetzarako heztea ez du esan nahi uko egiten diogunik gatazkak izateari; aitzitik, aurre egin behar diegu gatazkei, eta haiek onerako eta eraginkortasunez gainditu.

Eskola-bizikidetza sustatzeko, ikuspegi proaktiboa eta hezitzailea izan behar da, eta, ondorioz, haren alde lan egin behar da, asmo argiak, bidezkoak eta beharrezkoak izanda. Bizikidetza da hezkuntza-prozesuaren funtsezko helburuetako bat, eta prozesu horrek onarpeneko eta errespetuzko jarrerak landu behar ditu, ikasleak helduen bizitzarako prestatuko baditu. Horrek guztiak ikasteko giroa sortu behar du eskolan.

Horrez gain, prebentzio-arloa indartu behar da, hala jakatuz gero, eremu eta giro egokiak sortuko baititugu, gatazkak, auziak eta indarkeriazko jokabideak prebenitzeko.

Azkenik, alderdi komunitarioari erreparatu behar zaio, guztion konpromisoa behar baita, bizikidetzaren hobetuko bada: Administrazioak komunitatearen osotasunari erreparatu behar dio; irakasleek, beren irakaskuntza-jardueraren baitan, balioetan hezi behar dituzte ikasleak; familiek beren laguntza eman behar dute, hezkuntzaren printzipioak eta ekintzak koordinatzeko; eta, nola ez, ikasleek beren ikaskideengan eragin behar dute, gatazkak prebenitu eta, sortuz gero, konpondu egin behar direla kontzientziarazteko.

Laburbilduz, eskolaren konpromisoa izan behar du: sentsibilizazio-lana egitea, bizikidetzaren berezko balioak sustatu eta hura kalte dezaketen jarrerak baztertzeko; gatazken sorrera, eta, batik bat, gatazkekiko jardunbide negatiboak prebenitzea; pertsonen duintasunaren aurka egin dezaketen egoerak identifikatzea eta hautematea, esaterako, berdinen arteko agintekeriak eragin ditzaketen tratatu txarrak; eta, finean, komunitatean esku hartzea, arazoei aurre egiteko, eta, batez ere, ikastetxeko giroa eta pertsonen arteko harremanak hobetzeko.

Ikasleek oinarrizko gaitasun batzuk eskuratu behar dituzte beren eskolatzearen etapa desberdinetan. Oinarrizko gaitasun horietako bat gizarte- eta herritar-gaitasuna da eta curriculum-arlo eta irakasgai guztiek izan behar dute berori lortzeko lagungarri. Zeharkako gaitasuna da eta irakasle guztiak inplikaturik daude lortzeko prozesuan, haien kategoria akademikoa eta espezialitatea zein den alde batera utzita.

Ikasleek gainontzekoak eskuratzen dituzten legez eskuratu behar dute gaitasun hau. Hezkuntza-prozesuan, gaitasun hori lortzen saiatzean, akatsak izan daitezke, hizkuntzari edo matematikari, adibidez, lotutako gaitasunetan ager daitezkeen bezalaxe, eta hezkuntza-sistemak gizarte- eta herritar-gaitasuna lortzera eraman behar ditu ikasleak, izpiritu berberarekin, eta, ahal den neurrian, beste oinarrizko gaitasun batzuetan agertzen diren akatsak berreskuratzeko erabiltzen ditugun bitartekoak erabiliz gainditu behar dituzte ikasleek oinarrizko gaitasun honetan agertzen diren akatsak.

Agiri honek bere baitan jasotzen dituen **201/2008 Dekretua, abenduaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoa** eta Dekretu horretan jasotako eskubideak urratzen dituzten egoeretan bete beharreko interbentzio-protokoloak, ikastetxeetan bizikidetzaren giro bat sortzeko edo, edozein arrazoiengatik, desagertu bada, berreskuratzeko erabilgarri izatea espero dugu.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko urtarrilaren 7an

JOSE ANTONIO CAMPOS GRANADOS

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburua

1.- ALDERDI OROKORRAK

Ikusita, edukien ikuspegitik, zer-nolako aplikazio-eremu zabala duen **201/2008 Dekretuak, abenduaren 2koak, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoak**, premiazkoa da eduki horiek antolatzekeo egitura bat sortzea, antolamendu horrek zentzua emango baitie edukiei, eta, finean, dekretuaren erabilera eta ikastetxeen egitekoa erraztuko baitu. Horrenbestez, arau honen egitekoetako bat da ikastetxeei laguntza ematea beren zeregin nagusia ahalik eta hoberen bete dezaten; hau da, ikasleek baldintza onetan bete dezaten beraien hezkuntza-prozesua, beren eskubideak arduraz erabiliz.

Atariko kapituluak xedapen orokorrak jasotzen ditu, eta, horien artean, Dekretuaren printzipio informatzaileak. Printzipio horiek dira, hain justu, gainerako edukien erreferentziako ardatza, lau multzotan banatuta.

Ikasleen eskubideak eta betebeharrak jorratzen ditu I. kapituluak, eta nabarmentzen du prestakuntza osoa jasotzeko eskubidea eta ikasteko eskubidea direla ikasle ororen eskubide nagusiak; hala ere, gogorarazten du garrantzi handikoak direla, era berean, errespetuarekin, partaidetzarekin eta bizikidetzaz hobetzeko izan behar duten inplikazioarekin lotutako eskubideak eta betebeharrak.

Dekretuko II. Kapituluak zuzendu beharreko jokabideak deskribatzen ditu eta haiek aukeran dituzten neurri zuzentzaileak zerrendatzen; zehazki, kapitulu horretako lehen atalak xedapen orokorrak zehazten ditu, zuzendu beharreko jokabideak adierazten eta haiek ikasleen adinarekin duten korrespondentzia finkatzen du. Zuzendu beharreko jokabideen deskribapena zehatzen du bigarren kapituluak. Neurri zuzentzaile hezitzaileak lantzen ditu hirugarren atalak.

Jokabideak zuzentzeko bide alternatiboak lantzen ditu III. kapituluak; hau da, prozedura formalik ez darabilten neurri hezitzaileak jorratzen ditu, adiskidetzeko eta kalteak konpontzeko bideak urratzeko. Halaber, bizikidetzaz hobetzeko inplikazioa hartzen duten ikasleek konpromiso hezitzaileak adierazten ditu.

Jokabide desegokiak, bizikidetzaren aurkakoak edo hura larriki kaltetzen dutenak zuzentzeko neurriak aplikatzeko prozedurak adierazten ditu IV. kapituluak. Prozedura zuzentzailea egituratzen duten xedapen orokorrak adierazten ditu lehen atalak. Jokabide desegokiak hitzezko adierazpenez zuzentzeko baliatu behar den prozedura lantzen du bigarren atalak, irakasleak haiek ebazteko eskumena duen kasuetan. Ikastetxeetako bizikidetzaren aurkakoak diren edo hura larriki kaltetzen duten jokabideak zuzentzeko prozedura arrunta azaltzen du hirugarren atalak, eta xedatzen du zuzendariak direla prozedura hori erabiltzeko kargu eskudunak. Ez-ohiko prozeduren izapideak zehazten ditu laugarren atalak; hau da, azaltzen du zer kasutan izendatu behar den instruktore bat, ebazpen-proposamena egiteko.

Arauren amaieran jasotzen diren xedapenak zehaztu egiten dituzte Dekretu hau aplikatzeko eta abiarazteko zenbait alderdi.

2.- 201/2008 DEKRETUAREN EGITURA

Jarraian, Dekretuaren egitura adierazten du laburpen-taula batek, haren alderdiak eskema moduan bistarazteko eta Dekretuaren aplikazioa errazteko.

KAPITULUA		ATALA	ARTIKULUA.		
ATARI-KOA	XEDAPEN OROKORRAK		1	Xedea eta aplikazio-eremua	
			2	Eskubideak eta betebeharrak egikaritzeko printzipio orokorrak	
			3	Eskubideak eta betebeharrak zuzentzeko printzipio orokorrak	
			4	Tipifikatu gabeko jokabideei neurriak aplikatzeko debekua	
			5	Bizikidetzeta-planak	
I	IKASLEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK	Lehen atala. Ikasleen eskubideak	6	Heziketa osoa	
			7	Arreta berehala jasotzeko eskubidea	
			8	Ikasle adingabekoen babesa	
			9	Eskola-errendimenduaren balorazio objektiboa	
			10	Eskola- eta lanbide-orientazioa	
			11	Pertsonaren integritatea, nortasuna eta duintasuna	
			12	Kontzientzia-askatasuna	
			13	Biltzea, elkartzea eta adieraztea	
			14	Adierazpen-askatasuna	
			15	Elkartzea	
		16	Parte hartzea		
		17	Informazioa		
		18	Aukera-berdintasuna		
		19	Gizarte-babesa		
		20	Ikasleen eskubideak betetzeko bermeak		
			Bigarren atala. Ikasleen betebeharrak	21	Ikastea
				22	Prestakuntza-jardueretan parte hartzea
				23	Bertaratzeko betebeharra
				24	Bizikidetzeta erraztea
				25	Pertsonen kontzientzia-askatasuna errespetatzea
	26	Eskola-arauak betetzea			
	27	Instalazioak zaintzea			
II	JOKABIDE DESEGOKIAK, BIZIKIDETZAREN AURKAKOAK ETA HURA LARRIKI KALTETZEN DUTENAK, ETA JOKABIDE HORIEN ZUZENKETA	Lehen atala. Xedapen orokorrak	28	Zuzendu beharreko jokabideak	
			29	Ikasleen adinari egokitzea	
		Bigarren atala. Jokabide-motak	30	Jokabide desegokiak	
			31	Bizikidetzaren aurkako jokabideak	
		Hirugarren atala. Neurri zuzentzaile hezitzaileak	32	Bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak	
			33	Ikastetxetik kanpo egindako ekintzen erantzukizuna	
			34	Jokabide desegokiaren zuzenketa	
			35	Bizikidetzaren aurkako jokabideen zuzenketa	
			36	Bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideen zuzenketa	
			37	Ikastetxez aldatzeko proposamena	
			38	Etengabeko ebaluazioa egiteko ezintasuna,	
			39	Ondorioak gizarte-gaitasunaren ebaluazioan	
			40	Sor daitezkeen kalteekiko erantzukizuna	
			41	Proporzionaltasuna bermatzeko irizpideak	
III	JOKABIDEAK ZUZENTZEKO BIDE ALTERNATIBOAK		42	Xedapen orokorrak	
			43	Prozedurarik gabe har daitezkeen neurri hezitzaileak	
			44	Prozedura adostasunez etetea	
			45	Prozedura etetea egoera konpondu delako	
			46	Prozedura etetea familiak egoera zuzendu duelako	
			47	Neurri zuzentzaileak etetea, arintzea edo kentzea	
			48	Bizikidetzarako konpromiso hezitzaileak	

KAPITULUA		ATALA	ARTIKULUA	
IV	NEURRI ZUZENTZAILEAK APLIKATZEKO PROZEDURAK	Lehen atala. Xedapen orokorrak	49	Bizikidetzaren aurkako jokabideak eta bizikidetzari kalte larriak eragiten dioten jokabideak zuzentzeko prozedurak
			50	Neurri zuzentzaileak aplikatzeko eskumena duten organoak
			51	Neurri zuzentzaileak aplikatzeko prozeduren epeak
			52	Prozedurak abiatzeko debekua, denbora igaro ondoren
			53	Neurri zuzentzaileak aplikatzeko unea
			54	Jakinarazpenak eta erreklamazioak egiteko modua eta epeak
			55	Datuak tratatzea, babestea eta ezabatzea
			56	Erreklamazioak eta errekurtsioak
		Bigarren atala. Jokabide desegokien	57	Jokabide desegokiak zuzentzeko ahozko prozedura
		Hirugarren atala. Bizikidetzaren aurkako jokabideak eta bizikidetzari kalte larriak eragiten dioten zuzentzeko prozedura arrunta	58	Ohiko prozeduraren erabilera
			59	Abiarazte-ekintzaren gutxienerako edukia
			60	Abiarazte-ekintza jakinaraztea eta aurre-entzunaldirako deitza
			61	Behin-behineko neurriak
			62	Entzunaldia
			63	Aplikatu beharreko neurri zuzentzailea erabakitzea
			64	Hezkuntza-ordezkaritzari eta gizarte-zerbitzuei jakinaraztea
			65	Erreklamazioak OOGan edo Eskola Kontseiluan
			66	OOGaren edo Eskola Kontseiluaren erabakia
			67	Jakinarazpena
		Laugarren atala. Bizikidetzaren aurkako jokabideak eta bizikidetzari kalte larriak eragiten dioten jokabideak zuzentzeko ohiz kanpoko prozedura	68	Noiz erabili behar den ez-ohiko prozedura
			69	Ohiz kanpoko prozedura abiatzeko epeak
			70	Abiarazte ekintzaren gutxienerako edukia
			71	Instruktorea izendatzea
			72	Abiarazte-ekintza eta har daitezkeen behin-behineko neurriak jakinaraztea
			73	Instruktorea errefusatzeko aukera
			74	Instruktorearen jarduerak
			75	Jakinarazpenak fiskaltzari
			76	Entzunaldira deitza
			77	Entzunaldia
			78	Ebazpen-proposamena
			79	Ohiz kanpoko prozedura amaitzeko epeak
80	Espedientea ebaztea eta amaitzea			
XEDAPEN GEHIGARRIAK	1		Itundu gabeko ikastetxe pribatuak	
	2	Adin nagusiko ikasleak dituzten ikastetxeetarako egokitzapena		
	3	Irakasleentzako laquntza eta defentsa juridikoa		
	4	Antolakuntza eta Jarduera Araudiaren edo Barne Araudiaren aldaketa		
	5	Prozeduretan erabili beharreko hizkuntza		
	6	Gurasoei egin beharreko jakinarazpenak, familien egoerari erreparatuta		
	7	Bizikidetzaren planak egiteko jarraibideak		
	8	Dokumentazioa eta datuen babesa		
XEDAPEN IRAGANKORRAK	1	Bertaratze-hutsegite kolektiboen erregimen iragankorra		
	2	Aldez aurretik abiarazitako prozedurak		
XEDAPEN INDARGABETZAILEAK				
AZKEN XEDAPENAK				

2.1.- IKASLEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

ESKUBIDEAK	BETEBEHARRAK
6. artikulua.- Hezkuntza integrala izateko eskubidea	21. artikulua.- Ikasteko betebeharra
7. artikulua.- Ikasle adingabeen eskubidea arreta berehala jasotzeko	22. artikulua.- Prestakuntza-jardueretan parte hartzeko betebeharra
8. artikulua.- Ikasle adingabeek ikastetxearen babesa jasotzeko duten eskubidea	23 artikulua.- Bertaratzeko betebeharra
9 artikulua.- Errendimendu akademikoaren balioespen objektiboa izateko eskubidea	24 artikulua.- Bizikidetza errazteko betebeharra
10 artikulua.- Eskola- eta lanbide-orientaziorako eskubidea	25 artikulua.- Pertsonen kontzientzia-askatasuna errespetatzeko betebeharra
11 artikulua.- Osotasun, nortasun eta duintasun pertsonaleko eskubidea	26 artikulua.- Kontzientzia askatasunerako betebeharra
12 artikulua.- Kontzientzia-askatasunerako eskubidea	27 artikulua.- Instalazioak zaintzeko betebeharra
13 artikulua.- Ikastetxeetan biltzeko, elkartzeko eta adierazteko eskubidea	
14 artikulua.- Adierazpen-askatasunerako eskubidea ikastetxeetan.	
15 artikulua.- Ikasleen elkartzeko eskubidea	
16 artikulua.- Parte hartzeko eskubidea	
17 artikulua.- Informazioa jasotzeko eskubidea	
18 artikulua.- Aukera-berdintasunerako eskubidea	
19 artikulua.- Gizarte-babeserako eskubidea	

2.2.- JOKABIDE DESEGOKIAK, BIZIKIDETZAREN AURKAKOAK ETA BIZIKIDETZARI KALTE LARRIAK ERAGITEN DIZKIOTENAK

JOKABIDE DESEGOKIAK (30. artikulua)

- a) Justifikatu gabeko puntualtasun-hutsegiteak.
- b) Justifikatu gabeko hutsegiteak.
- c) Ikastetxeko instalazioei, ikastetxeko materialari edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen gauzei narriadurak eragitea, zabarkeriagatik gertatzen denean.
- d) Irakasleek edo agintari akademikoek agindutakoa ez betetzea, betiere ikasleak haiek mespretxatzen eta iraintzen ez baditu edo diziplina nahita hausten ez badu; baita ikastetxeko gainerako langileek beren jardunean emandako aginduei jaramonik ez egitea ere.
- e) Hezkuntza Komunitateko kideen aurkako adeitasunik ezako jarrera, keinu edo hitzak.
- f) Ikastetxeko Gobernu Organoak bere eskumenen eremuan debekatutako ekipoak, materialak, jantziak edo aparatuak ikastetxera eramatea.
- g) Ikastetxeko ekipamendua (elektronikoa, mekanikoa, telefonikoa, informatikoa edo edozein motatakoa) baimenik gabe edo baimendutakoak ez diren helburuetarako erabiltzea.
- h) Ikastetxeko langileei gezurra esatea edo informazio faltsua ematea, betiere horrek hezkuntza-komunitateko inori kalterik eragiten ez badio.
- i) Kalifikaziorako baliatuko diren azterketa, proba edo ariketetan kopiatzea edo besteei norberarena kopiatzen erraztea, edo azterketa, proba edo ariketa horietan baimenduta ez dauden material edo aparatuak erabiltzea.
- j) Hartarako baimenik ez dutenei ikastetxean sartzeko aukera erraztea edo haiekin sartzea, ikastetxeko Bizikidetzaren arauen edo Gobernu Organoen jarraibideen aurka.
- k) Ikaskideen gauzak nahita erabiltzea, haien borondatearen aurka.
- l) Norberaren betebeharren beste edozein ez-betetze, betiere hezkuntza-komunitateko gainerako kideei beren eskubideak baliatzea galarazten, oztopatzen edo eragozten ez badie, eta jokabide hori ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabide gisa edo bizikidetzaren horri kalte larria eragiten dion jokabide gisa sailkatuta ez badago.

JOKABIDE DESEGOKIEN ZUZENKETA (34. artikulua)

- a) Izandako jokabide desegokiari eta haren ondorioei buruzko hausnarketa.
- b) Kaltetuak izan diren pertsonen aurrean jokabidea desegokia izan dela onartzea.
- c) Jokabide-eredu egokiak ikasteko eta barneratzeko jarduerak egitea.
- d) Jokabide desegokiaren nolakotasunarekin zerkusua duen zereginen bat egitea.

BIZIKIDETZAREN AURKAKO JOKABIDEAK (31. artikulua)

a) Ikastetxeetako kide bakarreko aginte-organoen edo irakasleen aginduak eta ikastetxeko gainerako langileek beren eginkizunen jardunean emandako aginduak ez betetzea, betiere horrekin batera diziplinarik eza agertzen bada edo irainak, mespretxuak, desafioak edo mehatxuak egiten badira.

b) Ikaskideen edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen aurkako mehatxuak edo irainak; betiere jokabide horiek ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabide gisa sailkatuta ez badaude, baita honako hauek ere: hezkuntza-komunitateko gainerako kideen aurkako keinuak edo jarrerak, ezbairik gabe erasotzeko saiakeratzat edo mehatxutzat har daitezkeenak.

c) Azterketa-ereduak lapurtzea edo erantzunak kopiatzea, eta horiek guztiak hedatzea, saltzea edo erostea.

d) Noten buletinetan edo gurasoentzako edo legezko ordezkariarentzako beste edozein dokumentutan edo jakinarazpenetan aldaketak egitea, eta, ikasle adingabeei dagokienez, dagokien hartzaileei ez ematea edo erantzunak aldatzea.

e) Kalteak eragitea bidegabeko erabileragatik ikastetxeko lokalei, altzariei, materialari edo dokumentuei, edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen gauzei, jokabide hori ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidea ez bada.

f) Ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenak edo Eskola Kontseiluak hartutako baliozko erabakiak nahita ez betetzea.

g) Pertsonak ohorerako, intimitaterako eta irudi propiorako duten eskubidea ez errespetatzea, haiek, edo, hala badagokio, haien gurasoek edo legezko ordezkariak, baimena eman gabe grabazio-baliabideak erabiliz.

h) Beste edonori bere eskubidea baliatzeko aukera galaraztea, indarkeria erabili gabe, eta beste edonor bere borondatearen aurka zerbait egitera behartzea; betiere, indarkeriarik erabili gabe.

BIZIKIDETZAREN AURKAKO JOKABIDEEN ZUZENKETA (35. artikulua)

a) Bizikidetzaren aurkako jokabideari eta haren ondorioei buruzko hausnarketa eta jokabidea bideratzeko orientazioak.

b) Kargu-hartze idatzia.

c) Kargu-hartzea, ikasleen gurasoak edo lege-ordezkariek bertan direla.

d) Ikaslea taldez edo gelaz aldatzea, aldi baterako edo behin betiko.

e) Lan hezigarriak edo eragindako kalte materialak konpontzeko lagungarriak diren zereginak egitea, edo hala badagokio, ikastetxeko jarduerak hobetzeko eta garatzeko lagungarriak direnak; betiere, hiru hilabetez gehienez ere. Lan edo zeregin horiek lotura izan behar dute ikasleak bizikidetzaren aurka izandako jokabidearekin.

f) Gai bateko edo batzuetako eskoletara joateko eskubidea eta jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak egiteko nahiz zerbitzuak jasotzeko eskubidea etetea, harik eta ikaslearen gurasoekin edo lege-ordezkariekin elkarrizketa bat egiten den arte. Eskubide-etendura horrek ezingo du hiru egun baino gehiago iraun.

g) Eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzeko eskubidea etetea, gehienez ere zuzendutako jokabidea egin den hiruhilekoa amaitu arte; edo, jokabide hori hiruhileko akademikoaren azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoa amaitu arte.

h) Eskolaz kanpo egin behar diren jarduera osagarrietan parte hartzeko eskubidea etetea, gehienez ere zuzendutako jokabidea egin den hiruhilekoa amaitu arte; edo, jokabide hori hiruhileko akademikoaren azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoa amaitu arte. Nolanahi ere, eskola-orduetan, ikasleari arreta eman beharko zaio ikastetxean.

BIZIKIDETZAREN AURKAKO JOKABIDEAK (31. artikulua)

i) Ordena nahasten duten portaerak autobusean edo eskolako jangelan, bai bakarka bai taldean, eta, betiere, bizikidetzan kalte larria eragiten ez badute.

j) Hezkuntza-komunitateko edozein kiderengan lesio fisikoak eragin ditzaketan objektuak zuhurtziarik gabe erabiltzea.

k) Ikastetxeko langileei gezurra esatea, informazio faltsua ematea edo norberaren nortasuna ezkatzea, horren ondorioz hezkuntza-komunitateko beste kide batzuei kalte egiten bazaie.

l) Diskriminazioa dakarren edozein egintza edo jokabide, diskriminazio horren arrazoia edozein izanik ere: jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun-egoera, kultura, erlijioa, sinesmena, ideologia, edo beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal, ekonomiko edo sozial. Betiere bizikidetzan kalte larria eragiten duen jokabidetzat hartzen ez bada.

m) Aurreko artikuluan adierazitako jokabide desegokiren bat gehienez ere hiru aldiz egitea hiruhileko akademiko berean; betiere, aurreko biak zuzendu badira, eta, ikasle adingabeei dagokienez, gurasoei edo legezko ordezkariak jakinarazi bazaizkie.

n) Ikasleen betebeharrak ez betetzea dakarren beste edozein jokabide, betiere hezkuntza-komunitateko gainerako kideei beren eskubideak baliatzeko edo beren betebeharrak betetzeko eragozpenik sortzen ez badie eta jokabide hori hurrengo artikuluan jasota ez badago, ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideen artean, hain zuzen ere.

BIZIKIDETZAREN AURKAKO NEURRIEN ZUZENKETA (35. artikulua)

i) Jangela-zerbitzua edo garraio-zerbitzua erabiltzeko eskubidea etetea, gehienez ere zuzendu beharreko jokabidea egin den hiruhilekoa amaitu arte, edo, jokabide hori hiruhileko akademikoaren azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoa amaitu arte; betiere, bizikidetzaren aurkako jokabidea zerbitzu horiek erabiltzen ari zenean egin badu ikasleak.

2. 1.g), 1.h) eta 1.i) idatz-zatietan adierazitako neurriak erabili ahal izan dira, soilik 1.a) eta 1.f) idatz-zatietan adierazitako neurrietatik bi gutxienez aplikatu ondoren bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideak zuzentzea lortu ez bada.

Dekretu honetako 3.1. atalean adierazitakoaren arabera interpretatuko da idatz-zati hau.

**BIZIKIDETZARI KALTE LARRIA
ERAGITEN DIOTEN JOKABIDEAK
(32. artikulua)**

a) Ikastetxeetako gobernu-organoekiko edo beren eskumenak betetzen diharduten irakasleekiko diziplinarik ezako egintza edo obediencia-ukatze esplizitu guztiak, ezarritako neurri zuzentzaileak betetzeari uko egitea barne, baita hezkuntza-komunitateko kideen aurkako adierazpen oso laido garri edo iraingarriak ere, laido edo irain horiek edozein modutan adierazita ere: ahoz, idazki bidez, edo baliabide informatikoak edo ikus-entzunezkoak erabiliz.

b) Diskriminazioa dakarten edo adierazten duten irainak erabiltzea, diskriminazio horren arrazoia edozein izanik ere: jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun-egoera, hizkuntza, kultura, erlijioa, sinesmena, ideologia, edo beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal, ekonomiko edo sozial.

c) Jazarpen sexista, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerakok, ezarritako definizioa aintzat hartuta: nahi ez duen pertsona batekin eta pertsona horren sexua dela-eta, hitzez, hitzik gabe edo fisikoki edozein jokabide izatea, eta horren helburua edo ondorioa pertsona horren duintasunari erasotzea edo kikilduta, etsai, makurrarazita, irainduta edo laidoztatua sentiarazteko giroa sortzea bada.

d) Hezkuntza-komunitateko edozein kideren aurkako eraso fisiko edo psikologikoa.

e) Ikastetxeko hezkuntza-komunitateko kideak beren osasunerako eta osotasun pertsonalerako oso kaltegarriak diren jokaerak egitera bultzatzea, hala nola tabakoa, alkohola eta drogak kontsumitzera bultzatzea.

f) Bizikidetzaren aurkako jokabide guztiak, taldean egiten direnean edo haien berri nahita zabaltzen denean, ahoz, idazki bidez, ikus-entzunezko baliabideen edo baliabide informatikoen bidez; baita berdinen arteko tratu txarreko egoeretan parte hartzen dutenean ere.

**BIZIKIDETZARI KALTE LARRIA
ERAGITEN DIOTEN JOKABIDEEN
ZUZENKETA (36. artikulua)**

1. Ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak zuzentzeko, aurreko artikuluan bildutako neurri bat edo gehiago aplikatuko ditu zuzendariak, eta, horiez gain, honako hauetako edozein:

a) Lan hezigarriak eskola-ordutegitik kanpo egitea, edo ikastetxeko jarduerak hobetzeko eta garatzeko lagungarriak direnak, edo, hala badagokio, eragindako kalte materialak konpontzeko lanak, betiere sei hilabetez gehienez ere.

b) Arlo edo irakasgai bateko edo gehiagoko eskoletara joateko eskubidea etetea hiru eskola-egunetik hogeira bitartean. Horren ondorioz, ikasleak ez du etengabeko ebaluazioa galduko, betiere lan jakin batzuk edo etxerako zeregin jakin batzuk egiten baditu, hartarako izendatutako irakasleek kontrolatuta.

c) Ikastetxera joateko eskubidea etetea hiru eskola-egunetik hogeira bitartean. Horren ondorioz, ikasleak ez du etengabeko ebaluazioa galduko; betiere, lan jakin batzuk edo etxerako zeregin jakin batzuk egiten baditu, hartarako izendatutako irakasleek kontrolatuta.

d) Eskolaz kanpoko jardueretan edo ikastetxetik kanpoko jarduera osagarrietan parte hartzeko eskubidea edo eskola-garraioko zerbitzua edo jangela-zerbitzua erabiltzeko eskubidea etetea. Neurri hori ikasturtea amaitu arte aplikatu ahal izango da.

2. Artikulu honetako 1.b), 1.c) eta 1.d) idatz-zatietan bildutako neurriak erabili ahal izango dira, baldin eta 1.a) idatz-zatian adierazitako neurrietako baten bat aplikatuta bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak zuzentzerik lortu ez bada.

Dekretu honetako 3.1. atalean araututakoaren arabera interpretatuko da idatz-zati hau

**BIZIKIDETZARI KALTE LARRIA
ERAGITEN DIOTEN JOKABIDEAK
(32. artikulua)**

g) Liskar edo jokabide erasokorrak eragitea edo jokabide horietan parte hartzea, betiere lesioak eragiteko arrisku larria sortzen bada.

h) Nahita kalteak eragitea ikastetxearen instalazioetan edo ondasunetan, ikastetxeko langileei, beste ikasle batzuei edo beste pertsona batzuei, bai bakarka. bai taldean.

i) Ordena nahasten duten jokabideak autobusean edo eskolako jangelan; betiere, hezkuntza-komunitateko edozein kiderentzako egoera arriskutsuak sortzen badituzte.

j) Grabazio-baliabideak erabiliz, besteek ohorerako, intimitaterako eta irudi propiorako duten eskubidea ez errespetatzea, aldeztatik haiek, edo, hala badagokio, haien gurasoek edo legezko ordezkariak, horrelakorik nahi ez dutela esanbidez adierazi badute.

k) Ikastetxeko jarduneko egintzetan, beste edonoren izena erabilia aritzea.

l) Euskarri idatzian edo informatikoan dagoen eskolako dokumenturen bat edo erregistroren bat kaltetzea, truketzea edo aldatzea, baita dokumentu akademikoak ezkatutzea edo baimenik gabe ateratzea ere.

m) Delitua edo zigor-arloko hutsegitea den edozein egintza, nahita egin bada.

n) Ikasturte berean gehienez ere hiru aldiz egitea aurreko artikuluan adierazitako bizikidetzaren aurkako edozein jokabide, artikuluko 1.m) idatz-zatian bildutakoa izan ezik, betiere aurreko biak zuzendu badira eta, hala badagokio, gurasoei edo legezko ordezkariari jakinarazi bazaizkie.

ñ) Norberaren betebeharrak ez betetzea dakarren edozein jokabide, betiere jokabide hori hezkuntza-komunitateko gainerako kideen edo beste edonoren eskubideen aurkakoa bada zuzenean; hain zuzen ere, honako eskubide hauen aurkakoa bada: osasunerako, osotasun fisikorako, adierazpen-askatasunerako, parte hartzeko, biltzeko, diskriminaziorik ez jasateko, ohorerako, intimitaterako eta norberaren irudirako eskubideena.

**BIZIKIDETZARI KALTE LARRIA
ERAGITEN DIOTEN JOKABIDEEN
ZUZENKETA (36. artikulua)**

3. Ikasleren bat, aurretiaz, zuzendua izan bada ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak izateagatik, ikastetxeko zuzendariak aukera izango du, 28. artikuluko 1.n) idatz-zatian adierazitako kasuan izan ezik, hezkuntzako lurralde-ordezkaritari eskatzeko ikasle horren matrikula beste ikastetxe batera aldatua izan dadin. Ikaslea adin nagusikoa balitz edo derrigorrezkoak ez diren ikasketak ikasiko balitu, urruneko hezkuntzako zentroetarako edo gaueko ikasketetako zentroetara lekualda daiteke haren espedientearekin. Adineztutako ikasleak edo derrigorrezko hezkuntzaren ondoko ikasketak egiten dituen ikasleak ez balu onartuko espedientearen lekualdaketa hori, baliogabetu egingo da ikasle horrek ikastetxean duen matrikula, eta baja emango zaio ikastetxe horretan.

4. Ikastetxeko bizikidetzari kalte larriak eragiten dizkion jokabidearen ondorioz berdinaren arteko tratatu txarrak edo jazarpen sexistak eragin edo iraunaraziko balitu, edota, jokabide horiek ikastetxeko irakasleren bati egindako erasoak badira, zuzenean proposa daiteke espedientearen lekualdaketa, aintzat hartu gabe ikasle hori aurretik zuzendua izan den ala ez. Jardunbide bera baliatzeko aukera izango da, baldin eta eraso fisiko bereziki larriak egin bazaizkie hezkuntza-komunitateko beste kideren bati.

Dekretu honetako 75. artikuluan adierazitakoaren arabera interpretatuko da idatz-zati hau.

Dekretu honetako 3.1. atalean adierazitakoaren arabera interpretatuko da idatz-zati hau.

2.3.- NEURRI ZUZENTZAILEAK PROPORZIONALTASUNEZ APLIKATZEN DIRELA BERMATZEKO IRIZPIDEAK (41. artikulua)

Ezin dira aplikatu Dekretuak aitortutako eskubideen aurkako jokabideak zuzentzeko neurriak, baldin eta ez badira aintzat hartzen, aurretiaz, kasu bakoitzean ematen diren inguruabarrak. Berariaz, inguruabar hauek aztertu behar dira:

- a) Zer-nolako kaltea eragiten duten jokabideek hezkuntza-komunitateko gainerako kideen eskubideen eta betebeharren egikaritzan.
- b) Jokabide horiengatik edo horien ondorioz, hezkuntza-komunitateko gainerako kideek beren duintasunean edo agintean jasan duten kaltea edo jasan dezaketena.
- c) Ikasleen jokabidean eragina duten inguruabar pertsonalak eta sozialak, behar bezala baloratzeko zer-nolako garrantzia duen haien betebeharren urrapenak eta 3.3. artikuluan adierazitako oinarritzko gaitasunetan izan ditzaketen gabeziak.
- d) Jokabidearen ekintzak egiteko gertatu diren inguruabarrak.

Aurrekoek gain, hauei erreparatuko zaie, neurrien aplikazioa proportzionala izango dela bermatzeko:

ERANTZUKIZUNA ARINTZEN DUTEN INGURUABARRAK

- a) Zuzentzea merezi duen jokabidea desegokitzen berehala onartzea.
- b) Aurretiaz neurri zuzentzaileak jaso ez izana.
- c) Materialari edo ondasun higigarriari edo higiezinei kalteak eragin bazaizkio, kalte horiek eskola-ordutik kanpo konpontzea, edo kalte horiek konpontzeko konpromisoa izenpetzea prozedura erabaki baino lehen.
- d) Jendaurrean barkamena eskatzea.
- e) Hain kalte larria eragiteko asmorik izan ez zuela erakustea.
- f) Eraso fisikoen kasuan, kalte edo lesiorik ez eragitea.

ERANTZUKIZUNA LARRITZEN DUTEN INGURUABARRAK

- Jokabidea zuzentzea eragin duten egite edo ez-egiteak honako ezaugarri hauek dituztenen aurka egiten direnean: adin txikiagokoak, minusbaliatuak, ahalmen fisiko txikiagokoak, ikastetxera etorri berriak; edo nagusikeriaz jokatu izana adierazten duen beste edozein zirkunstantzia.
- b) Hutsegitea **nahita** egina izatea (*).
 - c) Hutsegitea **aldez aurretik pentsatu** (*) ondoren edo jakinaren gainean egitea.
 - d) Jokabidea zuzentzea eragin duten egite edo ez-egiteetarako taldean jardutera bultzatu edo akuilatu izana.
 - e) Eskola-arloko ordezkaritza-kargua gehiegikeriaz baliatzea, jokabidea zuzentzea eragin duten ekintzak egiteko.

(*)

.- **“Nahita”**: borondatez, intentzios, apropos egina.

.- **“Aldez aurretik pentsatua”**: Bide hauetakoren batez adierazten dena: hutsegitea lasaitasunez, gogo irmoz eta aurrez pentsatuta egitea eta hutsegite-jarduerak behin eta berriz errepikatzea.

2.4.- JOKABIDEAK ZUZENTZEKO BIDE ALTERNATIBOAK (42., 43., 44., 45., 46., 47. eta 48. artikulua)

Dekretuak dakarren beste berritasunetako bat da eskubideen aurkako jokabideak zuzentzeko neurriak ez direla, erabakiak izan ondoren, finakoak eta mugiezinak, aukera izango baita, baldintza batzuk betez gero, neurri horiek eten, arindu edo kentzeko. Hauek dira bide alternatiboak:

XEDAPEN OROKORRAK (42. artikulua)

1. Ikastetxeetako zuzendariak ahalegina egingo dute bizikidetzaren arazoak konpontzeko, Dekretu honetako IV. kapituluaren araututako prozedurak erabili gabe, eta, ahal dela, kapitulu honetan adierazten diren bide alternatiboak erabilia.
2. Lehenetsunez, zuzendariak ahalegina egingo dute alde hauek adiskidetu daitezkeen: hezkuntza-komunitateko kideren bati eskubideak urratu dizkion ikaslea eta bere eskubideak urratuak ikusi dituen hezkuntza-komunitateko kidea. Horrez gain, eta, posible bada, sortutako kalte materialak edo moralak konpontzen ahaleginduko dira.
3. Bide horiek erabiliz zuzendu diren jokabideen berri eman behar zaie ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenari edo Eskola Kontseiluari eta irakasleen klaustroari (jokabide horiek bizikidetzaren aurkakoak izan behar zuten edo bizikidetzari kalte larria eragiten diotenak).
4. Bizikidetzaren aurkako jokabideak eta hari kalte larria eragiten diotenak, behin kapitulu honetan adierazitako bide alternatiboak erabilia zuzendu ondoren, soilik ondorio hauetarako jasoko dira ikastetxeetan: ikasleak aurrez hutsegiteren bat egin duen ala ez jakiteko.

PROZEDURA BERTAN BEHERA UZTEA ADISKIDETZEA GERTATU DELAKO (44. artikulua)

1. Adiskidetzari gertatzen bada, eten egingo da prozedura. Adiskidetzea izango da, gertakari hauek ematen badira:
 - a) Ikasleak onartzea hark egin duen jokabidea bizikidetzaren aurkako delakoa edo bizikidetzari kalte larria eragiten dizkiola, eta, berariaz, urratu egin dituela hezkuntza-komunitateko gainerako kideen eskubideak.
 - b) Ikasleak barkamena eskatzea edo azalpenak ematea.
 - c) Kaltetua izan den pertsonak, edo, kasuan-kasuan, ikastetxeko organo eskudunak barkamena onartzea.
 - d) Jarduera hezitzailearen bat egitea onartzea.
2. Adiskidetzeak ez du bertan behera utziko prozedura 37. artikuluan adierazitako jokabideren bat gertatu bada, baina, hala ere, arindu egingo ditu aplikatzekoak diren neurriak.

PROZEDURARIK GABEKO NEURRI HEZITZAILEAK (43. artikulua)

1. Bizikidetzaren aurkako jokabideak edo hari kalte larria eragiten dizkietenak gertatzen badira, zuzendariak, inolako prozedurarik martxan jarri aurretik, ahalegina egingo dute ikasleek jokabide horiek zuzen ditzaten, beren borondatez onartutako neurrien bidez, edo, egoerak hala eskatzen badu, haien gurasoek edo lege-ordezkariek onartutako neurrien bidez. Proposatutako neurriak onartzen badira, ez da prozedurarik abiatuko, edo, prozeduraren bat abiatuta badago, eten egingo da.
2. Ezingo da horrela jokatu, salbuespenezko egoera hauetan:
 - a) Adin nagusikoak diren ikasleak izan badira ikastetxearen bizikidetzari kalte larria eragiten dizkieten jokabideak egin dituztenak.
 - b) 37. artikuluan adierazitako jokabideak eman badira.
 - c) Ikastetxean gutxienez bi aldiz egin bada ahalegina bide horietatik konpontzeko bizikidetzaren aurkako jokabideak edo hari kalte larria eragiten dizkietenak, eta ez bada erdietsi lortu nahi zen helburu hezitzailea. Zuzendu nahi izan diren jokabideak izaera berekoak izan behar dute.

PROZEDURA BERTAN BEHERA UZTEA KALTEA KONPONDU DELAKO (45. artikulua)

1. Prozedura bertan behera utziko da baldin eta konpondu egiten badira bizikidetzaren aurkako jokabideen eta hari kalte larria eragiten dizkieten jokabideen biktimak edo erakunde kaltetuek jasandako kalteak, edo haiek konpontzeko konpromiso fidagarria hartzen bada. Konponketa horrek kalte materialak eta moralak konpondu behar ditu.
2. Kalteen konponketak edo haien konpontzeko konpromisoa hartzeak ez du etengo prozedura, baldin eta 37. artikuluan adierazitako jokabideren bat gertatu bada, baina, hala ere, arindu egingo ditu aplikatzekoak diren neurriak.

PROZEDURA BERTAN BEHERA UZTEA JOKABIDEA FAMILIA-EREMUAN ZUZENTZEAGATIK (46. artikulua)

Prozedura bertan behera uzteko aukera izango da, baldin eta, zuzendariaren iritziz, jokabidea behar bezala zuzentzen ari bada familia-eremuan. Ezingo da halakorik egin, jokabidea 37. artikuluan adierazitakoren bat baldin bada.

NEURRI ZUZENTZAILEAK ETEN, ARINDU EDO BARKATZEA. (47. artikulua)

1. Kaltetutako pertsonen entzun ondoren, aplikaturiko neurrien baldintzapeko etetea erabaki dezake zuzendariak, baita betetzealdia murriztea edo neurriak deuseztatzea ere, ofizioz edo interesdunak nahiz, azken hori adin txikikoa bada, bere lege-ordezkariek eskatuta; betiere, alde zuzentzeko, ikaslearen jarrera modu positiboan aldatu dela egiaztatuz gero.
2. Zuzendu beharreko jokabideak berriz gertatuz gero, berrerortzetzat hartuko da, zigorra bertan behera geratuta ere.
3. Jakinarazi egin behar zaie ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenari edo Eskola Kontseiluari eta irakasleen klaustroari neurri zuzentzaileak bertan behera utzi direla arrazoi horiek direla medio.

BIZIKIDETZA-KONPROMISO HEZIGARRIAK. (48. artikulua)

1. Kasu guztietan, kaltetuek barkamena onartu ez dutelako adiskidetzarik lortu ez denetan ere, neurri zuzentzaileen aplikazioa eten ahal izango da ikasle interesdunak bizikidetza-konpromiso hezigarria sinatzen badu; ikaslea adingabea bada, gurasoek edo legezko ordezkariak ere sinatu behako dute.
2. Bizikidetza-konpromiso hezigarrietan, honako hauek bildu beharko dira, behar bezala zehaztuta, baita denboraren aldetik ere: bizikidetzari buruzko prestakuntza-jardunak, eta bizikidetzaren aurkako jokabideak aldatzeko eta horien prebentziorako gurasoek edo legezko ordezkariak, hartarako konpromisoa hartuta, gauzatuko dituztenak, eurek edo erakunde, ikastetxe edo pertsona egokien bidez gauzatuko dituztenak, hain zuzen ere. Era berean, ikastetxearekin komunikatzeko eta koordinatzeko mekanismoak bildu beharko dira.
3. Ez badira betetzen bizikidetza-konpromiso hezigarriak, berehala aplikatuko dira etendako neurri zuzentzaileak.

"Dekretuko 3.4. artikuluan adierazitako gutxieneko esku-hartzearen printzipioari erreparatuta aplikatu behar da 44., 45., 46. eta 47. artikuluek araututakoa.

3.- BIZIKIDETZA-ARAZOAK IKASTETXEETAN: JARDUERA ETA NEURRI ZUZENTZAILEAK


Dekretuaren alderdi interesgarrienetako bat hartan jasotako eskubideak urratzen dituzten jokabideei ematen zaien tratamendua da; izan ere, tratamenduari zentzu positiboa ematen zaio, helburuetan eta jardueretan hezkuntza-prozesu antolatuagoa, parte-hartzaile guztiak gehiago errespetatuko dituen eta emaitzetan eraginkorragoa izango dena lortzen laguntzeko.

Hortik abiatuta, ikastetxeetan bizikidetzaren nahastean duten jokabideak berraztertu behar dira, hura kudeatzeko beharrezko jarduerak zuzentzaileak egokitu, eta, jakina, hezkuntza-komunitateko kide guztien parte-hartzea lortu, haien ekarpena beti izango baita ezinbestekoa; gainera, estrategia berriak erabili behar dira, egungoen lagungarri eta osagarri izateaz gain, bidea eman dezaten gatazkak egungo gizarte-dinamiketatik hurbilago dagoen eran konpontzeko. Jardueren zehaztasuna eta eraginkortasuna oso lotuta dago haiek guztiak barneratuta dauden egitura argia izatearekin.

Tutoreak koordinatuta, talde bakoitzeko irakasleek osatzen dute ikasgelako gatazken prebentzioaz eta bizikidetzaren arauz lehendabizikoz arduratzen den hezkuntza-taldea. Ikastetxeko giro orokorra eta bizikidetzaren hobetzen laguntzen duen guztia prebentzio-neurritzat har daiteke. Jokabide-desorekak irakasleen lanaren bidez zuzen litezke alderdi hauetan:

- Bizikidetzarako trebetasunak, curriculumeko beste edozein gaitasun edo eduki bezala, irakaskuntza-gai izan daitezke ikasgelako ohiko jarduerak-esparruan.
- Baliteke ikaslea zuzentzen ahalegintzeko zigorra baino ez erabiltzea eraginkorra ez izatea, horrekin batera, oinarritzko gizarte- eta hiritar-gaitasuna eta norberaren garapenerako eta autonomiarako gaitasuna lortzen laguntzeko, hezkuntza-prozesu sistematikoa erabiltzen ez bada.
- Irakasleak, besteak beste, ikastetxean bizikidetzaren giro egokia sortzen eta mantentzen lagundu behar du, irakasleek estudia, lan egin eta ikas dezaten.

FLUXU-DIAGRAMA. BIZIKIDETZA NAHASTEN DUTEN JOKABIDEAK



4.- NEURRI ZUZENTZAILEAK APLIKATZEKO PROZEDURAK

Jokabide desegokiak, bizikidetzaren kontrakoak edo bizikidetzari kalte larria egiten diotenak Dekretuan jasota daude, eta haiek zuzentzeko erabili beharreko prozeduraren aukeraketa xedapen orokorrean buruzko 49. artikuluan xedatutakoak zehazten du. 57. artikuluan **Hitzezko Prozedura** aipatzen da jokabide desegokiak zuzentzeko. Kapitulu honetako hirugarren atalean jasotako artikuluek (58 eta 67 artukoak) **Ohiko Prozeduraren** erabilpena aipatzen dute, eta laugarren atalekoak (68 eta 80 artukoak) **Ohiz kanpoko Prozedurari** buruzkoak dira.

4.1.- NEURRI ZUZENTZAILEEN XEDAPEN OROKORRAK

Derrigorrezkoa izango da Dekretuko IV. kapituluaren araututako prozeduretako bat erabiltzea, bizikidetzaren aurkako jokabideak eta bizikidetzari kalte larria egiten diotenak zuzentzeko, baldin eta ezin izan badira aplikatu III. kapituluaren jasotako ordezko bideak.

1. Irakasle guztiek eskumena dute berehala zuzentzeko ikasleen **jokabide desegokiak**, zaintzapean dauzkatenean gelan edo ikastetxeko beste instalazio batzuetan, edo handik kanpo (50.1 art.).
2. **Irakasle guztiek**, beren aurrean **bizikidetzaren kontrako jokabide bat** gertatzen bada, **edo bizikidetzari kalte larria egiten diona**, eskumena daukate ikaslea unean bertan hitzez ohartarazteko, bai eta zuzendariarengana bidaltzeko ere, edo ikasketaburuarengana, edo une horretan ikastetxearen ardura bere gain duen zuzendaritzataldeko kide batengana (50.2 art.).
3. **Zuzendariak du bizikidetzaren kontrako jokabideak edo hari kalte larria egiten diotenak zuzentzeko eskumena** (50.3 art.).
4. **Ordezkaritza Organo Gorenak edo Eskola Kontseiluak du** zuzendariaren erabakiak **berraztertzeko eskumena** (50.4 art.).
5. **Epeak:** Epe guztiak **eskola-egunetan** adieraziko dira (51.1 art.). Eskola-egun dira irailaren 1etik ekainaren 30era bitarte dauden aste barruko (astelehenetik ostiralera arteko) egun baliodunak, oporraldietakoak izan ezik (51.2 art.).
6. **Denbora igarotzeagatik prozedura hasteko debekua** (52. art.): (52. art.):
 - **Bizikidetzari kalte larria egin zion jokabidea** gertatu zenetik 120 egunetik gora igaro badira.
 - **Bizikidetzaren kontrako jokabidea** gertatu zenetik 60 egunetik gora igaro badira.
 - **Jokabide desegokia** gertatu zenetik 20 egunetik gora igaro badira.
7. **Neurri zuzentzaileen aplikazioa.** (53. art.)
 - **Bizikidetzaren kontrakoak diren edo kalte larria egiten dioten jokabideen** kasuan, Ordezkaritza Organo Gorenean edo Eskola Kontseiluan erreklamazioa jartzeko epea bukatzen den unean aplikatu ahal izango dira.
 - Jokabide desegokiaren kasuan, erabakitzen diren unetik aurrera.
 - Bizikidetzari kalte larria egin dioten jokabideen kasuetan, **ezingo da neurri zuzentzailerik aplikatu** 120 egunetik gora igaro badira behin betiko erabakia hartu zenetik, eta bizikidetzaren kontrako jokabideetan 60 egun igaro badira. Jokabide desegokietan, 20 egun igaro ondoren.
8. Dekretuan jasotako prozeduretako ekitaldi bakoitzaren **jakinarazpeni** dagokienez (54. art.), ekitaldia egin **ondoko lehen eskola-eguna** bukatu baino lehen jakinarazi behar da.

Dekretuko prozedurekin zerikusia duten **erreklamazioak** jartzeko epea **hiru egunekoa** izango da.

Jakinarazpenak eta **zitazioak** edozein bide erabiliz egin ahal izango dira, baldin eta hartzaileek jaso dituztela egiaztatzeko modua ematen badute.


9. **Jokabideei buruzko datuak** (55. art.) prozeduraren dokumentazioan baino ez dira agertuko. **Ez dira idatziko inongo erregistro iraunkorretan**, eta gerta liteke beste ikastetxe batera aldatzea.

Nolanahi ere, bizikidetzaren **kontrako jokabideen** prozeduretan, dokumentazioa apurtu egingo da haiek gertatu diren **ikasturtea amaitutakoan**, eta bizikidetzari **kalte larria egin dioten** jokabideetan, prozedura abiarazi eta hurrengo ikasturtearen amaieran apurtu beharko da.

Prozedura guztietan, haietan esku hartzen duten pertsonen eskubide hauek zaindu beharko dira: ohorea, duintasuna, intimitatea eta norberaren irudia.

10. Zuzendariaren erabakia **erreklamatu** ahal izango da (56. art.) **Ordezkaritza Organo Gorenean edo Eskola Kontseiluan**, hiru eguneko epean. Ikasleak erabaki horren aurkako **erreklamazioa jarri** ahal izango dio kasuan kasuko **Lurralde-ordezkariari**, erabakia **jaso eta hiru eguneko epean**.

Erreklamazioa ezetsia bada, **gora jotzeko errekurtsioa** jarri ahal izango dio **Hezkuntza-sailburuordeari**, erreklamazioaren ebazpenaren jakinarazpena egin eta **hilabeteko epean**.



4.2.- JOKABIDE DESEGOKIAK ZUZENTZEKO HITZEZKO PROZEDURA (57. art.)

Kontuan hartuta 54. artikuluan ikasleari eta, ondorioz, haren gurasoei gaitzetsitako jokabidea jakinarazteaz xedatuta dagoena, eta agian 31.1.m artikulua aplikatuko denez, beharrezkoa da edozein ohartarazpen ikasleari eta haren aita-amei jakinaraztea. Jokatzeko modua eta oinarritzko dokumentazioa ondoren adierazten direnak izan daitezke.

1.- Hitzezko ohartarazpena. Jokabide desegokiari buruzko hausnarketa

Prozedura guztiz hitzezkoa izan badaiteke ere, 31.1.m artikulua aplikatu nahi bada, jokabide desegokiak behin eta berriz gertatu direla adieraziz, beharrezkoa izango da dokumentu bidez haiek ez ezik, hartutako neurri zuzentzailea eta, hala egokituz gero, gurasoei egindako jakinarazpena ere frogatzea (I. eranskina).

2.- Idatzizko ohartarazpena

Ohartarazpen mota hau I. Eranskinaren bidez egingo da. Irakasleak bete ondoren, bi kopia egingo ditu: bata, tutoreari utziko dio; bestea, ikasketa-buruzagitzan utziko du. Jatorrizkoa ikasleari emango dio, hurrengo egunean, irakasle horrekin eskola duenean, gurasoek izenpetuta itzul diezaion. Dokumentu hori irakasleak gordeko du.

3.- Ikastetxeko Zuzendaritza Taldeak berehala ohartaraztea

Irakasleak ahalik eta lasterren ziurtatu behar du ikasleak benetan jo duela une horretan ikastetxearen ardura duen Zuzendaritza Taldeko edozein kiderengana.

4.- Ikasketa-lanak egitea eta jokabide-arauak barneratzea jolasgaraian

5.- Zeregin edo jarduera akademikoak egitea

*Oharra: 3., 4. eta 5. puntuetan jasotako neurri zuzentzaileentzat, eta "31.1.m" artikulua aplikatzeko aukera dela eta, hartan jokabide desegokiaren behin eta berrizkotasuna aipatzen baita, beharrezkoa izango da dokumentu bidez jokabidea ez ezik, neurri zuzentzailea eta, hala egokituz gero, gurasoei egindako jakinarazpena ere frogatzea. Horretarako, honekin batera doan **I. Eranskinaz** baliatu ahal izango da irakaslea.*

4.3.- BIZIKIDETZAREN KONTRAKO JOKABIDEAK ETA HARI KALTE LARRIA EGITEN DIOTENAK ZUZENTZEKO OHIKO PROZEDURA

Ohiko prozedura erabiltzeko, beharrezkoa izango da **ekintzak nabarmenak izatea**, bai zuzendu beharreko jokabidea, bai **haien egilea**.

Prozedura hori **ofizioz hasi** eta **idatziz egingo** da, eta, gutxienez, **hasierako ekitaldia**, **ikasleak** eta, hala egokituz gero, haren gurasoek edo legezko ordezkariak **esan beharrekoa entzutea** eta amaierako **ebazpena** izango ditu.

1. URRATSA BIZIKIDETZAREN KONTRAKO JOKABIDEA EDO HARI KALTE LARRIA EGITEN DIONA JAKITEA. HASIERAKO EKITALDIA

Zuzendariak jakin du ikasle batek bizikidetzaren kontrako jokabidea edo hari kalte larria egin diona izan duela, dela jokabidearen lekuko zuzena izan delako, dela informazio sinesgarria helarazi diotelako.

"**Hasierako ekitaldia**" delakoaren edukia (59. art.):

- Jokabide gaitzesgarriaren deskribapena.
- Dekretuak, edo ikastetxeko Antolakuntza eta Jarduera Araudiak, edo Barne Araudiak jasotakoaren arabera, bizikidetzaren kontrakoa den edo hari kalte larria egiten dion jokabidea izatea.
- Dekretuan adierazitakoetatik, aplikatu litezkeen neurriak.
- Neurriaren aplikazioa erabakitze organo eskuduna.

- Dekretuan aurreikusitako **adiskidetze (44. art.)** edo **konponketa (45. art.)** bidezko **etete** kasuak.

2. URRATSA.- HASIERAKO EKITALDIA IKASLEARI ETA, HALA EGOKITUZ GERO, GURASOEI EDO LEGEZKO ORDEZKARIEI JAKINARAZTEA ETA ALDEZ AURREKO ENTZUNALDIRAKO ZITAZIOA EGITEA (60. art.)

Zuzendariak edo hark ahala utzi dion pertsonak idatziz jakinaraziko dio **ikasleari hasierako ekitaldia**, hala nola gurasoei edo legezko ordezkarietara. Jakinarazpenean **entzunaldirako** eguna eta ordua jasoko dira, eta hura **hasierako ekitaldia** jakinarazi eta **hurrengo eskola-egunean** egingo da, non eta ez duten **gurasoek edo legezko ordezkarietara** agertu behar, orduan **gehienez hiru eguneko epea** izango baita (II. Eranskina).

3. URRATSA.- BEHIN-BEHINEKO NEURRIAK HARTZEA. IKASLEARI ETA, HALA EGOKITUZ GERO, GURASOEI EDO LEGEZKO ORDEZKARIEI JAKINARAZTEA (61. art.)

Zuzendariak, bizikidetzari kalte larria egin dioten jokabideak gertatu direnean, **behin-behineko neurriak** hartu ahal izango ditu, eta neurri horiek idatziz jakinaraziko dizkio ikasleari, edo haren gurasoei edo legezko ordezkarietara; neurri horien artean hauek egon daitezke: eskola guztietara edo haietako batera joateko eskubidea aldi batez etetea, edo taldea behin-behinekoz aldatzea (II. eranskina).

Behin-behineko neurriak prozedura amaitu arte iraunarazi ahal izango dira, proposatu beharreko neurri zuzentzaileak baino astunagoak izan gabe, eta osorik kontuan hartuko dira, erabiltzen den neurri zuzentzailearen betetze-ondorioetarako.

4. URRATSA.- IKASLEAREKIN ETA, HALA EGOKITUZ GERO, GURASOekin EDO LEGEZKO ORDEZKARIEKIN ENTZUNALDI (62. art.)

Kasu guztietan, beharrezkoa izango da ikaslearekin entzunaldia egitea, adina edo hartu beharreko neurria edozein izanda ere. Adingabeek entzunaldian **gurasoek edo legezko ordezkarietara lagunduta egoteko eskubidea dute**. Azken horiek ikaslearen ondoren egin ahal izango dituzte beren alegazioak. Haien presentzia derrigorrezkoa izango da kasu hauetan: **jokabideak larriki kaltegarriak** direnean; **eskolaz kanpoko jardueretan edo jarduerara osagarrietan parte hartzeko** eskubidea aldi batez **galtzen denean**; eta **garraio- eta/edo jangela-zerbitzuak erabiltzeko eskubidea etetea** gertatzen denean.

Entzunaldia "hasierako ekitaldia" jakinarazi eta hurrengo eskola-egunean egingo da, eta gurasoen edo legezko ordezkarietara presentzia aginduzkoa bada, gehienez hiru eguneko epean (II. Eranskina).

Alegazioak idatziz jaso beharko dira (III. eranskina).

Entzunaldiko dokumentua zuzendariak sinatuko du, edo hark horretarako ahala eman dion pertsonak, bai eta ikasleak ere, eta gurasoek edo legezko ordezkarietara agertu behar izanez gero, aginduzkoa izango da horiek ere sinatzea; ez badute egin nahi, zuzendaritza-taldeko kide bat edo irakasle bat agertzeko eskatuko da, alegazioak irakurri ondoren berrets ditzan.

5. URRATSA.- APLIKATU BEHARREKO NEURRI ZUZENTZAILEARI BURUZKO ZUZENDARITZAREN ERABAKIA. HURA IKASLEARI JAKINARAZTEA, BAI ETA, HALA EGOKITUZ GERO, GURASOEI EDO LEGEZKO ORDEZKARIEI ERE (63. art.)

Ikasleari, legezko ordezkarietara, ikaslearen aitari edo amari (hala egokituz gero), tutoreari eta izan daitezkeen lekukoei entzunaldia egin ondoren, zuzendariak edo hark ahala eman dion pertsonak, kontuan hartuko ditu kasuaren inguruabarrak, hala nola erantzukizuna aldatzen dutenak. Ondoren, **arrazoitutako idatzi** baten bidez (IV. eranskina), bere erabakia jakinaraziko dio ikasleari¹, entzunaldiaren **hurrengo eguneko eskolak amaitu baino lehen**,

¹ Bi kopia emango zaizkio ikasleari, haietako bat gurasoek sinatuta itzul diezaion ikastetxeari.

eta, horretarako, gurasoek edo legezko ordezkariak erabakia ziur jasoko dutela bermatzen duen edozein bitarteko erabiliko du.

Arrazoitutako idatziak, gutxienez, hauek jaso beharko ditu:

- **Nola jakinarazi zaizkien (jakinarazpenaren ziurtasuna)** ikasleari, gurasoei edo legezko ordezkariari bizikidetzaren kontrako edo hari kalte larria egindako jokabideak.
- **Frogatutako gertaeren deskribapena.**
- **Ikaslearen, gurasoen edo legezko ordezkarien alegazioak.**
- Zuzendariaren iritziz egon daitezkeen **inguruabar astungarriak edo aringarriak.**
- Aplikatu daitezkeen neurri zuzentzailea.
- Neurriaren aplikazioa noiz hasiko den (inoiz ez Ordezkaritza Organo Gorenean edo Eskola Kontseiluan erreklamazioa egiteko epea bukatu baino lehen, eta hori adierazi egin behar da).

6. URRATSA.- ZUZENDARITZAREN ERABAKIAREN JAKINARAZPENA ORDEZKARITZA-ORGANO GORENARI EDO ESKOLA-KONTSEILUARI, ETA KLAUSTROARI (63.3 art.)

Zuzendariak Ordezkaritza Organo Gorenari, Eskola Kontseiluari eta Klaustroari jakinaraziko die bere erabakia.

Agertutako jokabidea bizikidetzarako larriki kaltegarritzat jotzen bada, edo ikastetxera aldi batez ez joatea ekartzen badu, edo aldi batez eskolako garraio- edo jangela-zerbitzua ez erabiltzea, Lurralde Ordezkaritzari eta udaletako edo diputazioetako gizarte-zerbitzuei jakinaraziko zaie, ikaslearen familiak haien laguntza jasoz gero. (64 art.).

7. URRATSA.- ZUZENDARITZAREN ERABAKIA ORDEZKARITZA-ORGANO GORENERA EDO ESKOLA-KONTSEILURA IGORTZEA, ERREKLAMAZIOA IZANEZ GERO

Ikasleak, edo haren gurasoek edo legezko ordezkariak berrikusteko errekurtsua jartzen badute Ordezkaritza Organo Gorenean edo Eskola Kontseiluan, zuzendariak espediente osoaren kopia bat bidaliko du hara, aztertu eta, ondoren, erabaki dezan. Erreklamazio hori zuzendaritzaren erabakia jaso eta hurrengo hiru eskola-egunen barruan egin beharko da.

8. URRATSA.- BIZIKIDETZAREN KONTRAKO JOKABIDEAK ETA HARI KALTE LARRIA EGITEN DIOTENAK ZUZENTZEKO OHIKO PROZEDURAREN ERREKLAMAZIOA ORDEZKARITZA-ORGANO GORENARI EDO ESKOLA-KONTSEILUARI (65.-66. art.)


Ordezkaritza Organo Gorenak, Eskola Kontseiluak edo legez eraturako batzordeak ikasleak, gurasoek edo legezko ordezkariak aurkeztutako erreklamazioa aztertuko dute, hala nola zuzendariak igorritako espedientearen kopiaren edukia.

Ordezkaritza Organo Gorenak, Eskola Kontseiluak edo eskuordetutako batzorde legez eratuak² kasua berriz aztertzea erabakitzen duenean, interesatuak edo interesatuek aurkeztutako alegazioen arabera, ezarritako zigorraren kontrako errekurtsua aldatzea edo berrestea proposatu ahal izango du arrazoitutako idatzi baten bidez. Erabaki hori erreklamazioa jarri duen/duten pertsona interesatuari/interesatuei frogatzeko moduan jakinarazi beharko zaio/zaie, **hiru egunetik gorakoa izango ez den epean**, eta jakinarazpenean **Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzan erreklamazioa jartzeko epea** jasoko da: beste hiru egun (V. eranskina).

Bizikidetzari **kalte larria egin dioten jokabideen** kasuetan, eta neurri zuzentzaileak **ikastetxera joateko edo garraio- eta/edo jangela-zerbitzuak erabiltzeko eskubidea aldi batez galtzea dakarrenean, Lurralde Ordezkaritzari jakinaraziko zaio.**

² Irakasleen, aita-amen eta ikasleen proportzioak gordetzen dituen (66.2 artikulua).

OHIKO PROZEDURA



4.4.- BIZIKIDETZAREN KONTRAKO JOKABIDEAK ETA HARI KALTE LARRIA EGITEN DIOTENAK ZUZENTZEKO EZOHIKO PROZEDURA

Ezohiko prozedura kasu hauetan aplikatuko da (68. art.):

- **Kaltetunak edo hirugarren pertsonak egindako salaketaren bidez izan denean** ustezko **gertaeren berri**.
- **Gertaerak nabarmenak ez diren** kasuetan.
- **Zuzendariaren iritziz prozedura egokiena** denean.
- Har daitekeen neurri zuzentzaileak **ikastetxez aldatzea** dakarrenean. (37 art.).

1. URRATSA.- EZOHIKO PROZEDURAREN HASIERA. (69. art.). HASIERAKO EKITALDIA

Ezohiko prozedura idatziz egingo da, eta gertatutakoen berri izan eta **gehienez 3 eguneko epean** hasiko da.

“**Hasierako Ekitaldian**” (70. art.) gutxienez hauek jasoko dira:

- **Jokabide gaitzesgarriaren** deskribapena.
- Dekretuak, edo ikastetxeko Antolakuntza eta Jarduera Araudiak, edo Barne Araudiak jasotakoaren arabera, bizikidetzaren kontrakoa den edo hari kalte larria egiten dion jokabidea izatea.
- Dekretuan adierazitakoetatik, **aplika litezkeen neurriak**.
- **Instruktorea** izendatzea ikastetxeko irakasleen artean (II. eranskina).
- Dekretuan aurreikusitako **adiskidetze edo konponketa bidezko etete** kasuak.

2. URRATSA.- "HASIERAKO EKITALDIA" ETA BEHIN-BEHINEKO NEURRIAK HAR DAITEZKEELA JAKINARAZTEA (72. art.)

Zuzendariak betiere jakinaraziko die hasierako ekitaldia ikasleari edo gurasoei edo legezko ordezkariari.

Egokitzen joz gero, **behin-behineko neurriak** hartu ahal izango ditu, eta neurri horiek idatziz jakinaraziko dizkio ikasleari, edo haren gurasoei edo legezko ordezkariari; neurri horien artean hauek egon daitezke: eskola guztietara edo haietako batera joateko eskubidea aldi batez etetea, edo taldea behin-behinekoz aldatzea.

Behin-behineko neurriak (II. eranskina) prozedura amaitu arte iraunarazi ahal izango dira, proposatu beharreko neurri zuzentzaileak baino astunagoak izan gabe, eta osorik kontuan hartuko dira, erabiltzen den neurri zuzentzailearen betetze-ondorioetarako.

3. URRATSA.- INSTRUKTOREAREN ABSTENTZIOA ETA EZESPENA (49.1 art.)

Instruktoreak abstenitu egin beharko du, ez badu inpartzialtasuna bermatzen prozeduran. Kasu horretan, abstentzioa idatziz aurkeztuko dio zuzendaritzari, bera izendatu eta egun bateko epean. Zuzendariak **egun bat** izango du izendapena berresteko, edo beste norbait izendatuko du (71.3 art.)

Ikasleak, hala nola haren gurasoek edo legezko ordezkariak **instruktorea ezetsi ahal izango dute**. Instruktoreak ez badu onartzen ezespena (VI. eranskina), zuzendariak 3 eguneko epean erabaki beharko du (73.2 art.). Instruktoreak ezespena onartzen badu, zuzendariak beste irakasle bat izendatuko du. Erabakitakoa ikasleari jakinaraziko zaio (VII. eranskina), eta, hala egokituz gero, haren gurasoei edo legezko ordezkariari (73.3 art.)

4. URRATSA.- PROZEDURA ETETEA ADISKIDETZE EDO KONPONKETAGATIK

Adiskidetzea gertatzen bada, edo konpontzeko konpromisoa, instruktoreak eten egingo du espedientea (VIII. eranskina), 37. artikuluan **ikastetxea aldatzeko** jasotako proposamenen kasuetan izan ezik. Nolanahi ere, neurri ez hain murriztaileak hartzea ekarriko du.

5. URRATSA.- ESPEDIENTEA FISKALTZARI JAKINARAZTEA, LEGEZ KONTRAKO EKINTZAREN ZANTZUAK IZATEAGATIK (75. art.)

Instruktorea sinetsita badago gertatutakoak Zigor Kodearen arabera delitu edo falta zigorgarria direla, zuzendaritzari jakinaraziko dio, gertaeren berri Adingabeen Fiskaltzara helaraz dezan, edo justizia arruntera (adindunen kasuan) eta Hezkuntza Ikuskaritzara.

Adingabeen kasuan, eta Adingabearen Erantzukizun Penalari buruzko urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoaren 18. eta 19. artikuluetan aurreikusitako ondorioetarako, egon litekeen **adiskidetzea, konponketa edo hezkuntza-esparruan aplikatzen ari den zuzentzea** jakinaraziko du.

6. URRATSA. IKASLEARI ETA, HALA EGOKITUZ GERO, GURASOEI EDO LEGEZKO ORDEZKARIEI ZITAZIOA EGITEA (76. art.)

Instruktoreak, hasierako informazioa jaso ondoren, idatziz deituko dio ikasleari, eta adingabea bada, gurasoei edo legezko ordezkariari. Haien **presentzia derrigorrezkoa izango da** kasu hauetan: **jokabideak larriki kaltegarriak** direnean; **eskolaz kanpoko jardueretan edo jarduera osagarrietan** parte hartzeko eskubidea aldi batez **galtzen denean**; eta **garraio-eta/edo jangela-zerbitzuak erabiltzeko eskubidea etetea** gertatzen denean.

Zitazio horretan hauek jaso behar dira (II. eranskina):

- Jokabide gaitzesgarriaren deskribapena.
- Dekretuak, edo ikastetxeko Antolakuntza eta Jarduera Araudiak, edo Barne Araudiak jasotakoaren arabera, bizikidetzaren kontrakoa den edo hari kalte larria egiten dion jokabidea izatea.
- Dekretuan adierazitakoetatik, aplikatu litezkeen neurriak.
- Neurriaren aplikazioa erabakitzeke organo eskuduna.
- Kontrako frogabideak proposatzeko aukera.

Entzunaldia "hasierako ekitaldia" jakinarazi eta hurrengo eskola-egunean egingo da, eta **gurasoen** presentzia aginduzkoa bada, gehienez **hiru eguneko** epean.

7. URRATSA.- IKASLEAREKIN ETA, HALA EGOKITUZ GERO, GURASOekin EDO LEGEZKO ORDEZKARIEKIN ENTZUNALDIA (77. art.)

Agerraldian frogak agerian jarriko dira, ikaslearen adierazpenak entzungo dira, eta, hala egokituz gero, gurasoenak edo legezko ordezkariarenak, eta horiek ere idatziz jaso beharko dira (62.5 art.). (III. eranskina).

Horrenbestez, instruktoreak ikasleari entzungo dio, gurasoei edo legezko ordezkariari ere bai, hori egitea aginduzkoa bada, eta haiek aurkeztutako alegazioak aztertuko ditu, hala nola frogak eta izan daitezkeen lekukoen adierazpenak. Gainera, prozesua hasi ondoko edozein unetan, egoki deritzen jarduerak egin ahal izango ditu, gertaerak argitu eta ebaluatzeko (78.1 art.).

8. URRATSA.- EBAZPEN-PROPOSAMENA IDAZTEA ETA IKASLEARI ETA, HALA EGOKITUZ GERO, GURASOEI EDO LEGEZKO ORDEZKARIEI JAKINARAZTEA, BAI ETA IKASTETXEKO ZUZENDARITZARI ERE (78.2 art.)

Ondoren, ebazpen-proposamena idatziko du (IV. eranskina); proposamenak arrazoitua izan beharko du, eta elementu hauek izango ditu: Egozten diren gertaerak, proposatutako neurri

zuzentzaileak hartzeko oinarria, erantzukizuna aldatzen duten inguruabarrak eta neurrien edukia. Ebazpen-proposamen hori beste agerraldi batean jakinaraziko zaio ikasleari **egun bateko** epean, eta gurasoei edo legezko ordezkariari **3 eguneko** epean, aginduzkoa bada haiek agertzea. Proposamenean alegazio berriak jasoko dira, erantsita, eta dokumentazio guztia zuzendariari igorriko zaio.

9.URRATSA.- ESPEDIENTEA EBAZTEA. ZUZENDARITZAK EBAZPEN-PROPOSAMENA BEHIN BETIKO IDAZTEA ETA HORI IKASLEARI ETA, HALA BADAGOKIO, GURASOEI EDO LEGEZKO ORDEZKARIEI JAKINARAZTEA

Espedientearen hasieratik (jakinarazi zenetik) ebazpen-proposamenera arte, ezin dira **15 egun** baino gehiago igaro; baina epe horri abstentzioari eta ezespeneri lotutako gorabeherak gehitzen zaizkio, bai eta ikasleari edo gurasoei edo legezko ordezkariari egotz dakizkiekeen atzerapenak ere (79.1 eta 2 art.).

Gertaeren konplexutasuna dela eta komenigarria bada, **zuzendariak 10 egun luzatu ahal izango du** prozeduraren instrukzioa (79.3 art.).

Luzapen hori ebazpenik gabe bukatzen bada, **prozedura iraungitzat joko da**, atzerapena ikasleari edo gurasoei edo ordezko ordezkariari egozgarria izan ezean (79.4 art.).

Ondoren, ebazpena idatziko du (80.1 art.) (IV. eranskina); ebazpenak arrazoitua izan beharko du, eta elementu hauek izango ditu: Frogatutako gertaerak, neurri zuzentzailea ezartzeko oinarriak, inguruabar aringarriak eta astungarriak (egonez gero), aplikatu daitezkeen neurri zuzentzailea, noiz hasi behar den aplikatzen, erreklamazio-epeak eta zer organori igorri behar zaion. Erreklamazio hori zuzendaritzaren erabakia jaso eta hurrengo hiru eskola-egunen barruan egin beharko da.

Jakinarazpena frogatu daitezkeen moduan (80.2 eta 3 art.) igorriko zaio ikasleari, hala nola gurasoei edo legezko ordezkariari. Era berean, Ordezkaritza Organo Gorenari edo Eskola Kontseiluari eta Klaustruari ere jakinaraziko zaie, zuzendariak egokitzen jotzen duen eran.

Era berean, kasuan kasuko Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzari jakinaraziko zaio, jokabideek kalte larria egin badiote bizikidetzari, eta neurriaren ondorioz ikastetxera joateko edo garraio-eta jangela-zerbitzuak erabiltzeko eskubidea aldi batez eteten bada; bai eta, hala egokituz gero, udaletako eta/edo diputazioetako gizarte-zerbitzuei ere (64. art.).

10. URRATSA. BIZIKIDETZAREN KONTRAKO JOKABIDEAK ETA HARI KALTE LARRIA EGITEN DIOTENAK ZUZENTZEKO EZOHIKO PROZEDURAREN ERREKLAMAZIOA ORDEZKARITZA-ORGANO GORENARI EDO ESKOLA-KONTSEILUARI


Ordezkaritza Organo Gorenak, Eskola Kontseiluak edo legez eraturako batzordeak ikasleak, gurasoak edo legezko ordezkariak aurkeztutako erreklamazioa aztertuko dute, hala nola zuzendariak igorritako espedientearen kopiaren edukia.

Ordezkaritza Organo Gorenak, Eskola Kontseiluak edo eskuordetutako batzorde legez eratuak kasua interesatuak edo interesatuek aurkeztutako alegazioen arabera berriz aztertzea erabakitzen duenean, ezarritako eta errekurritutako neurri zuzentzailea aldatzea edo berrestea proposatu ahal izango du arrazoitutako idatzi baten bidez. Erabaki hori erreklamazioa jarri duen/duten pertsona interesatuari/interesatuei frogatzeko moduan jakinarazi beharko zaio/zaie (V. eranskina), **hiru egunetik gorakoa izango ez den epean**, eta jakinarazpenean **Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritari erreklamazioa jartzeko epea** jasoko da, **beste hiru egun baliodunekoa**. Aintzat hartu ezean, gorako errekurtsioa jarri ahal izango dio Hezkuntza Sailburuordeari, **hilabeteko** epean.

OHIZ KANPOKO PROZEDURA

GERTAERAK

60 egun baino gutxiago bizikidetzaren kontrako jokabideaz gero 120 egun baino gutxiago bizikidetzari kalte larria egin zion jokabideaz gero



EZ

Ohiko prozedura

3 eskola-egun gertaerak jakin zirenetik

Hasierako ekitaldia jakinaraztea + Instruktoea izendatzea

Eskola-egun bat



BAI

PROZEDURAREN AMAIERA

INSTRUKTOREAREN JARDUERAK

1-3 eskola-egun

Entzunaldirako zitazioa

Ikaslearekin eta/edo gurasoekin edo legezko ordezkariarekin entzualdia

Ebazpen-proposamena

Ebazpen-proposamenaren ikustaldirako zitazioa

Ebazpen-proposamenaren ikustaldia

Zuzendariari egindako ebazpen-proposamena

Neurri zuzentzailea jakinaraztea

PROZEDURAREN AMAIERA ETA, HALA EGOKITUZ GERO, NEURRIAK APLIKATZEA
3 eskola-egun

BAI



BAI

OOGaren edo EKaren erabakia jakinaraztea

BAI/EZ

3 eskola-egun

BAI



Lurralde Ordezkariaren erabakia jakinaraztea

Hilabete

Gorako errekurtsua Sailburuordeari

15 egun baino gutxiago igaro dira, gorabeherak konpontzeko egunak gehituta. Zuzendariak beste hamar egun zabal dezake epea.

**201/208 DEKREUAREN KONTRAKO JOKABIDEAK ZUZENTZEKO
PROZEDUREN EUSKARRI DOKUMENTALEN ERANSKINAK**

I. ERANSKINA

IDATZIZKO OHARTARAZPENA, JOKABIDE DESEGOKIAGATIK (57.2. art.)

Ikaslea:

Maila:

Guraso agurgarriok:

Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez besteko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoa (2008ko abenduaren 16(e)ko EHAA), zuen semearen/alabaren portaeraz informatu behar zaituztet. Hain zuzen ere:

.....
.....
.....

(Leporatzen zaizkion ekintza, portaera eta jokabideen deskripzio zehatza: eguna, ordua, lekua. Idazkiak bere oinarrian bat etorri behar du Dekretuan, Antolakuntza eta Jarduera Araudian edo Barne Araudian datozen jokabideekin)

Horregatik, **neurri zuzentzaile** hau aplikatu zaio:

.....

Zuen seme/alabarentzat eta Ikastetxearen jarduera onarentzat kaltegarria den jokabide hau berriro gerta ez dadin laguntza eskatu nahi dizuet, eta gogorarazten dizuet horrelako portaerak errepikatzea ikastetxeko **bizikidetzaren kontrako jokabide** gisa har daitekeela, 31.1.m artikulua arabera).

Adeitasunez agurtzen zaituzte,

.....(e)n, 2....(e)koaren(e)(a)n

Irakaslea:

Izpta.:

.....

Jaso dut jakinarazpena:

Hartzailea:

Aitaren, amaren edo legezko tutorearen (adinduna bada, interesatuaren) izenpea

Jaso den eguna:

Oharra: Jakinarazpen hau helaraziko zaie interesatuei (guraso, legezko tutore edo, adinduna bada, ikasleari) ikastetxe honetako Antolakuntza eta Jarduera Araudiak edo Barne Araudiak zehazten dituen bideei jarraituz.

II. ERANSKINA

BIZIKIDETZAREN KONTRAKO JOKABIDEAGATIK EDO BIZIKIDETZARI KALTE LARRIA EGITEN DION JOKABIDEAGATIK (marratu zein ez den) PROZEDURA ZUZENTZAILEA HASI IZANA JAKINARAZTEA (Prozedura Arruntaren 59. eta 60. art. eta Ohiz kanpoko Prozeduraren 70. eta 72. art.)

..... Jaunak/Andreak,
..... ikastetxeko zuzendariak, beharrezko informazioa jaso ondoren,

ERABAKI DU

BAT.-

OHIKO PROZEDURA hastea. (IV. Kapitulu. Hirugarren Atala)

OHIZ KANPOKO PROZEDURA hastea. (IV. Kapitulu. Laugarren Atala)

bizikidetzaren kontrako jokabideak zuzentzeko/bizikidetzari kalte larria egiten dioten jokabideak zuzentzeko (marratu zein ez den), ikasle honi:

.....,(e)ko

..... kurtsoa, ustez honako hauek egin dituelako:

.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....

(Leporatzen zaizkion ekintza, portaera eta jokabideen deskripzio zehatza: eguna, ordua, lekua. Idazkiak bere oinarrian bat etorri behar du Dekretuan, Antolakuntza eta Jarduera Araudian edo Barne Araudian datozen jokabideekin).

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez besteko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuaren IV. KAPITULUko hirugarren/laugarren atalak (marratu zein ez den) dioenaren ildotik,

	Aipatutako jokabidea bizikidetzaren kontrako jokabideen 31. artikuluaaren paragrafoan dator (<i>aipatu</i>), eta 35. artikuluaaren ... paragrafoan (<i>aipatu</i>) zehaztutako neurrien bidez zuzendu ahal izango da.
	Aipatutako jokabidea bizikidetzari kalte larria egiten dioten jokabideen 32. artikuluaaren paragrafoan dator (<i>aipatu</i>), eta 36. artikuluaaren ... paragrafoan eta hurrengoetan (<i>aipatu</i>) zehaztutako neurrien bidez zuzendu ahal izango da.

(*Jokabide hori ikastetxeko Antolakuntza eta Jarduera Araudian edo Barne Araudian jasota balego, aipatu egingo da*).

201/2008 Dekretuaren 50.3 artikulua agintzen duenez, **ikastetxeko Zuzendariak du eskumena** bizikidetzaren kontra doazen edo bizikidetzari kalte larria egiten dioten jokabideak zuzentzeko.

Prozedura hau bertan behera utz liteke jokabideak zuzentzeko **ordezko neurriak** aplikatuz gero, Dekretuko Hirugarren Kapituluak zehazten duen moduan. Horien artean daude:

- Ikasleak bere gogoz onartzea heziketa-neurriak (43. art.).
- Adiskidetzea (44. art.).
- Kalteak konpontzea (45. art.).
- Familiaren barruan zuzentzea (46. art.).

BI.- 201/2008 Dekretuaren 61. artikuluan aipatzen den **behin-behineko neurria hartzea**, hain zuzen ere (zehaztu hauen artean):

*Klaseren batera edo guztietara joateko eskubidea aldi baterako kentzea // behin-behinean taldez aldatzea, **ikaslearekin entzunaldia egin arte / prozedura amaitu arte** (marratu zein ez den) ikastetxeak bere betiko lanean jarraitu ahal izan dezan.*

HIRU.- Entzunaldirako deitzea, ikaslearekin batera (egoki bada), 2... (e)koaren(e)rako,e(t)an,e)n (ipini non), eta dena delakoa alegatu ahal izango da, eta egoki iruditutako bideak proposatu ahal izango dira.

Inor azalduko ez balitz, horren akta jaso eta prozedurarekin jarraituko da, araudiak agintzen duen moduan.

(OHIZ KANPOKO PROZEDURA DENEAN SOILIK)

LAU.- Prozeduraren instruktore izendatzea

jaun/andre irakaslea, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez besteko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuko 71. artikulua araberan, eta jakinarazpen hau interesatuari helaraztea.

Honen berri ematen dizut jakin dezazun eta Dekretu horretako 73. artikulua dioenaren bidetik, nahi izanez gero, instruktorea ezets dezazun, baldin eta errekusatzeko arrazoi bat baletor Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 29. artikuluekin.

.....(e)n, 2....(e)koaren(e)(a)n

Zuzendaria

Izpta.:

Jaso dut jakinarazpena:

Hartzailea: _____

Jaso den eguna: _____

Aitaren, amaren edo legezko tutorearen (adinduna bada, interesatuaren) izenpea

Oharra: Jakinarazpen hau helaraziko zaie interesatuei (guraso, legezko tutore edo, adinduna bada, ikasleari) ikastetxe honetako Antolakuntza eta Jarduera Araudiak edo Barne Araudiak zehazten dituen bideei jarraituz.

III. ERANSKINA

ENTZUNALDI-IZAPIDEAREN AKTA

(Prozedura Arruntaren 62. art. eta Ohiz kanpoko Prozeduraren 77. art.)

..... ikastetxean, 2....(e)koaren(e)(a)n,
....e(t)an, bertan daudelarik:

<input type="checkbox"/>	Zuzendaria:	Ohiko Prozedura.
<input type="checkbox"/>	Instruktorea:	Ohiz kanpoko Prozedura.

Agertu d(ir)a:

Ikaslea:

Legezko ordezkariak:

prozeduraren ikustaldia eta entzunaldia egiteko, artikulua (aukeratu 62 edo 77, prozedura-
motaren arabera) xedatzen duenaren arabera **abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez besteko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoan**, eta gertaerak argitze aldera erakusten dira frogazko elementu hauek (egin zerrenda):

- 1.
- 2.
- 3.

Alegazio hauek ere egin dira:

- 1.
- 2.
- 3.

(Ohiz kanpoko prozeduran bakarrik). Eta dei egiten zaie **Ebazpen Proposamenaren ikustaldirako** hilaren(e)(a)n,e(t)an,(e)n (zehaztu non).

Ekitaldi hau egin dela ziurtatuz, sinatzen dute:

Zuzendaria	Ikaslea / Legezko ordezkaria	Instruktorea
Izpta:	Izpta:	Izpta:

Ez dira entzunaldira agertu ez ikaslea ez bere legezko ordezkariak, prozedura honetako zuzendariak / instruktoreak deitu zituenak ikastetxe honetara etortzeko 2.....(e)koaren(e)rako,e(t)an, eta, beraz, araudiak aurreikusten duena jarraituko da.

.....(e)n, 2....(e)koaren(e)(a)n

Zuzendaria

Instruktorea

Izpta.:

Izpta.:

IV. ERANSKINA

APLIKATZEKO NEURRI ZUZENTZAILEAREN JAKINARAZPENA (Prozedura Arruntaren 63. art. eta Ohiz kanpoko Prozeduraren 78. eta 80. art.)

Ikastetxe honetan **ohiko prozedura / ohiz kanpoko prozedura** (marratu zein ez den) egin ondoren, 2...(e)koaren(e)(a)n(e)n gertatu zenagatik, eta bertan

Zuzendariak: Ohiko Prozedura.
 Instruktoarak: Ohiz kanpoko Prozedura.

..... jaunak/andreak, **jakinarazten dizu:**

1.- Frogatutako gertaerak. (*zehaztu frogatutzat emandako gertaerak eta horiek egiaztatzeko frogak*).

2.- Jokabide okerr(ar)en kalifikazioa, Dekretuaren barruan (31. edo 32. artikulua arabera adierazi).

3.- Ikaslearen, gurasoen edo legezko ordezkarien alegazioak.

4.- Neurri zuzentzaileak aplikatzeko proportzionaltasuna: inguruabar aringarriak eta astungarriak (41. art.).

5.- Neurri zuzentzaileak eta aplikatzeko unea (35. edo 36. eta hurrengo artikuluen arabera adierazi).

6.- Ohiz kanpoko Prozeduraren Ebazpenerako Proposamenean bakarrik. 201/2008ko Dekretuaren 78.2 artikulua xedatzen duenaren arabera, **hiru irakasteguneko epea** dago alegazioak egiteko eta beharrezko iruditutako dokumentuak aurkezteko.

7.- Dekretuaren 65. artikulua xedatzen duenaren arabera, **3 egunen epean** erreklamazioa egin daiteke, eta **arrazoitutako idatzi baten bidez** eska daiteke Ordezkaritza Organo Gorenak edo Eskola Kontseiluak berrikus dezan.

.....(e)n, 2...(e)koaren(e)(a)n

Zuzendaria

Instruktoarea

Izpta.:

Izpta.:

Jaso dut jakinarazpena:

Hartzailea:

Jaso den eguna:

Aitaren, amaren edo legezko tutorearen (adinduna bada, interesatuaren) izenpea

Oharra: Jakinarazpen hau helaraziko zaie interesatuei (guraso, legezko tutore edo, adinduna bada, ikasleari) ikastetxe honetako Antolakuntza eta Jarduera Araudiak edo Barne Araudiak zehazten dituen bideei jarraituz.

V. ERANSKINA

ESKOLA-KONTSEILUAREN / ORDEZKARITZA-ORGANO GORENAREN EBAZPENA, APLIKATUTAKO NEURRI ZUZENTZAILEA BERRIKUSTEKO ESKABIDEARI BURUZKOA (66. art.)

PROZEDURA: Ohikoa/Ohiz kanpoko (marratu ez dena)

Eskola Kontseilu / Ordezkaritza Organo Goren honi berrikuspen-eskabidea egin dionez (dagokionak):

..... jaunak/andreak,(e)ko urteko
ikaslea denen (*aitak, amak, tutoreak*)

(adinduna bada edo legez emantzipatutako adingabea)(e)ko urteko
..... ikasle jaunak/andreak

Ikasle horri jokabideak zuzentzeko prozedura bat ireki zaionez, Dekretuak xedatzen duenaren bidetik, kontsiderazio hauek egin dira:

1.-

2.-

3.-

Horien aurrean, Eskola Kontseilu / Ordezkaritza Organo Goren honek hau proposatu du:
[Zehaztu hauen artean: Erreklamazioa ez onartzea, jokabidea zuzentzeko neurria egokia delakoan / Neurri zuzentzailea berrikustea, arrazoi hauengatik]:

1.-

2.-

3.-

(Hala badagokio) Era horretan, neurri zuzentzailea aldatu eta honela geratu da:

.....

.....

Ebazpen honen kontrako erreklamazio berria egin ahal izango da Lurraldeko Hezkuntza Ordezkararen aurrean 3 egunen epean.

.....(e)n, 2.....(e)koaren(e)(a)n

Idazkaria

Presidenteak O.E.

Izpta.:

Izpta.:

Jaun/Andre (erreklamatzailea)

Oharra: Jakinarazpen hau helaraziko zaie interesatuei (guraso, legezko tutore edo, adinduna bada, ikasleari) ikastetxe honetako Antolakuntza eta Jarduera Araudiak edo Barne Araudiak zehazten dituen bideei jarraituz.

VI. ERANSKINA

INSTRUKTOREA EZESTEARI EMANDAKO ERANTZUNA (73.2 art.)

..... jaunak/andreak,
..... ikastetxeko irakasleak, mailako
..... kurtsoko ikasleari
prozedura zuzentzailea hasi ondoren,(e)koaren(e)(a)n ustez
egindakoagatik ,eta jaunak/andreak
NI **instruktore izateko** jarritako **ezespenaren** aurrean, Euskal Autonomia Erkidegoko
unibertsitatez besteko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko abenduaren
2ko 201/2008 Dekretuaren 73.2 artikuluaaren arabera, eta alegatutako arrazoiak ikusirik,
jakinarazten dizut ontzat eman dela / ez dela ontzat eman (marratu zein ez den), kontuan
hartuz *Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen*
azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 29. artikulua.

.....(e)n, 2....(e)ko en(e)(a)n

Instruktorea

Izpta.:

..... ikastetxeko zuzendari jauna/andrea

VII. ERANSKINA

INSTRUKTOREA EZESTEARI EMANDAKO EBAZPENA (73.3 art.)

..... jaunak/andreak,
..... ikastetxeko zuzendariak,(e)ko kurtsoko
..... ikasleari prozedura
zuzentzailea hasi ondoren,(e)koaren(e)(a)n ustez egindakoagatik ,eta
instruktorearen aurka jaunak/andreak
aurkeztutako **ezespenaren** aurrean, Dekretuko 73.2 artikuluaaren arabera,

EBATZI DUT:

	Ontzat ematea eta instruktore berria proposatzea: jauna/andrea
	Ezespena ontzat ez ematea eta lehengo instruktorea mantentzea

.....(e)n, 2....(e)koaren(e)(a)n

Zuzendaria

Izpta.:

Jaun/Andre (erreklamatzaileria)

Oharra: Jakinarazpen hau helaraziko zaie interesatuei (guraso, legezko tutore edo, adinduna bada, ikasleari) ikastetxe honetako Antolakuntza eta Jarduera Araudiak edo Barne Araudiak zehazten dituen bideei jarraituz.

VIII. ERANSKINA

PROZEDURA ZUZENTZAILEA BERTAN BEHERA UZTEA, JOKABIDEAK ZUZENTZEKO ORDEZKO BIDEAK APLIKATU DIRELAKO (III. KAPITULUA)

PROZEDURA ZUZENTZAILEA BERTAN BEHERA UTZI DELA JAKINARAZTEN DU

..... zuzendari jaunak/andreak,
..... ikasleari irekitako
prozedura zuzentzailearen barruan.

Gaurko egunez oraindik ebazpenik eman ez eta jokabidea zuzentzeko ordezeko neurriak aplikatu direnez; hain zuzen ere (deskribatu):

.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....

Jakinarazten dizut bertan behera utzi dela prozedura zuzentzailea, **Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez besteko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuaren III. Kapituluaren** zehazten denaren arabera.

.....(e)n, 2... (e)koaren(e)(a)n.

Zuzendaria

Izpta.:

Ikasle jauna/andrea edo bere legezko ordezkariak:

.....

Oharra: Jakinarazpen hau helaraziko zaie interesatuei (guraso, legezko tutore edo, adinduna bada, ikasleari) ikastetxe honetako Antolakuntza eta Jarduera Araudiak edo Barne Araudiak zehazten dituen bideei jarraituz.

IX. ERANSKINA

IKASTETXEAREN ZUZENDARITZARI USTEZKO LEGEZ KONTRAKO EKINTZA³ JAKINARAZTEA, FISKALTZARA HELARAZTEKO (75. art.)

..... ikasleari hasitako prozedura zuzentzailearen instruktore den jaunak/andreak, ikastetxeko zuzendariak hala izendatu baitzuen 2.../...../.....(e)ko datarekin, jokabide hauek argitzeko (zehaztu):

- 1.
- 2.
- 3.

GERTATUTAKOAK FROGATURIK daudelakoan. (zehaztu frogatutzat emandako gertaerak eta horiek egiaztatzeko frogak).

.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....U
re jakinaren gainean jartzen dut jokabide hori(ek) legez kontrakoa(k) izan daite(z)keela, eta, beraz, jakinarazi egin beharko litzaiokeela Fiskaltzari, **Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez besteko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuko** 75. artikuluaaren arabera.

.....(e)n, 2... (e)koaren(e)(a)n.

Instruktorea


Izpta.:

..... ikastetxeko zuzendari jauna/andrea

(Ikastetxeko zuzendariak, arduradun nagusia denez, agintari judizialari jakinarazi beharko dio gertatutakoa, eta, era berean, eskolako jardueraren nahasmendu larria denez, Hezkuntzako Ikuskaritza lehenbailehen jakinaren gainean jarri eta jakinarazpenaren kopia bidali beharko dio Hezkuntzako Lurralde Ordezkarari. 75.3 art.).

³ Jakinarazpen honek ez du paralizatzen prozedura zuzentzailea.

PROZEDURA ZUZENTZAILEEN LABURPENA



201/2008 DEKRETUKO ARTIKULUEKIN LOTUTAKO ARAUEN **ERANSKINA**

1.- 3/2005 LEGEA, OTSAILAREN 18KOA, HAURRAK ETA NERABEAK ZAINTEKO ETA BABESTEKOA

25. artikulua.– Erakundeen arteko lankidetzak eta norbanakoen lankidetzak

1.– Baldin eta agintariek edo herritarrek jakiten badute derrigorrezko hezkuntza jasotzeko adinean dagoen haur edo neraberen bat eskolaratu gabe dagoela edo, arrazoibiderik eman gabe ez dela eskolara joaten, eskumena duten herri-agintariei jakinarazi beharko diete, batez ere Hezkuntza Administrazioako agintariei, Toki Administrazioako erakundeei eta ministerio fiskalari, haurra edo nerabea eskolaratzeko, edo eskolara joanarazteko, beharrezkoak diren neurriak har ditzaten.

2.– Halaber, hezkuntza-zentroetako titularrek eta langileek adingabeen babesaren arloan eskumena duten herri-administrazioei edo, beharrezkoa bada, ministerio fiskalari edo epaileari jakinarazi behar dizkiete hurrenganako tratu txarrak, haurren babesgabetasuna edo horien arrisku-egoera ekar dezaketen egitateak, eta halaber adierazi beharko dizkiete horrelakoetan behar diren esku-hartzeak eraginkorrak eta kalitatezkoak izango direla bermatzeko behar diren datu guztiak; orobat, elkarlanean aritu beharko dute horrelako egoerak eragozteko eta konpontzeko, baina betiere adingabeen lehentasunezko interesak edukiko dira kontuan.

2.- 4/2005 LEGEA, OTSAILAREN 18KOA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKOA

29. artikulua. Curriculumak

1. Hezkuntza Administrazioak hezkidetzako proiektuak sustatuko ditu, eta jarraian aipatzen diren hezkidetzak-helburuak integratuko ditu hezkuntzako maila ezberdinetako jakintza-arloetako eta diziplinetako curriculumaren diseinuan eta garapenean:

- a. Emakumeei eta gizonei esleitzen zaizkien jokabide-eredu soziokulturaletan oinarrituta eraiki diren sexuaren arabeko aurreiritzi, estereotipo eta rolak ezabatzea, sexu bateko zein besteko ikasleei beren buruak erabat garatzeko aukerak eskaintze aldera.
- b. Emakumeen jakintza eta emakumeek gizadiaren garapenari egin dioten ekarpen sozial eta historikoa integratzea; horretarako, irakasten diren edukiak berrikusiko dira eta, hala dagokionean, zuzendu.
- c. Beharrezko ezagutzak sartzeko, neska-mutil ikasleek, etxeko lanak eta pertsonak zaintzea direla eta, gaur egun dauzkaten eta etorkizunean izan ditzaketen beharrian eta erantzukizunen ardura har dezaten.
- d. Ikasleak trebatzea, aukera akademikoak egiten dituztenean ez ditzaten aintzat hartu generoan oinarritutako baldintzapenak.
- e. Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea; horretarako, gatazkak konpontzeko indarkeriarik gabeko metodoak erakutsiko dira, bai eta aniztasunean eta emakumeek eta gizonek eskubide eta aukeren aldetik duten berdintasunaren errespetuan oinarritzen diren bizikidetzak-ereduak ere.

2. Era berean, Hezkuntza Administrazioak oinarritzeko printzipiotzat ezarriko du hezkuntza-maila guztietan indarkeriazko jokabideak prebenitzea, eta eguneroko bizitzari buruzko eduki eta aldi zehatzak ezarriko ditu hezkuntza-maila guztietan. Eduki eta aldiotan, honakoekin zerikusia duten alderdi eta edukiak integratuko dira: etxearekin, pertsonen zainketarekin, harreman

pertsonalen funtzionamendua ezagutzearekin, eta gatazkak konpontzeko indarkeriarik gabeko metodoak eta sexuen berdintasunaren eta aniztasunaren errespetuan oinarritzen diren bizikidetzak-ereduak ikastearekin.

31. artikulua. Pertsonak eta egiturak

1. Beren zereginetan genero-ikuspegia integratzeko, hezkidetzan trebakuntza zehatza jaso duten langileak izango dituzte hezkuntzaren arloa ebaluatu, ikertu eta berritzeaz arduratzen diren organoek eta irakasleen laguntzarako zerbitzuek.

2. Hezkuntza Administrazioak zera bultzatuko du: emakume zein gizon irakasleek presentzia orekatua izan dezatela jakintza-arlo eta hezkuntzako etapa ezberdinetan, eta halaber ikastetxeen zuzendaritza-organoetan.

3. Irakasleek ikastetxeen zuzendaritza-organoei jakitera eman behar diete emakumeen eta neskato-mutikoen aurka nabaritzen duten indarkeria-zantzu oro.

3.- 8/1985 LEGE ORGANIKOA, UZTAILAREN 3KOA, HEZKUNTZA JASOTZEKO ESKUBIDEA ARAUTZEN DUENA

8. artikulua

Irakasleek, administrazioako eta zerbitzuetako langileek, ikasleen gurasoek eta ikasleek eskubidea dute ikastetxean bilerak egiteko, eta hori bermatuko da indarrean dagoen legeria jarraituz eta hezkuntza-jardueren garapen normala kontuan hartuz.

Ikasleek ikastetxeetan modu eraginkorrean parte har dezaten eta bilerak egiteko eskubidea bultzatzearen, ikastetxeek beren antolakuntza- eta jarduera-arauak egiterakoan zehaztuko dituzte ikasleen eskubide hori aurrera eramateko baldintzak. Hezkuntza Administrazioek erabakitakoaren ildotik, derrigorrezko bigarren hezkuntzaren hirugarren ikasturtetik aurrerako ikasleek hartzen dituzten erabaki kolektiboak, eskolara joateari buruzkoak, ez dira jokabide-faltatzat hartuko ez eta zigortuko ere, baldin eta bilerak egiteko eskubidearen ondorio izan badira eta aurrez ikastetxeko zuzendaritzari jakinarazi bazaizkio.

4.- 1/1996 LEGE ORGANIKOA, URTARRILAREN 15EKOA, ADINGABEAREN BABES JURIDIKOARENA, KODE ZIBILA ETA PROZEDURA ZIBILEKO LEGEA HEIN BATEAN ALDATZEN DITUENA

7. artikulua. Parte hartzeko, elkartzeko eta bilerak egiteko eskubidea.

2. Adingabeek elkartzeko eskubidea dute, eta horren barruan doa, batez ere:

- a. Alderdi politiko eta sindikatu-tako gazte-elkarte eta -erakunde-tako parte izateko eskubidea, Legearen eta Estatutuen arabera.
- b. Gazte- eta haur-elkarteak bultzatzeko eta Legearen arabera inskribatzeko eskubidea. Elkarte horietako zuzendaritza-organo-tako parte izateko eskubidea.

Haur- edo gazte-elkarteak zibilez behartuak egon daitezten, beren Estatutuen arabera izendaturik eduki behar dute legeko ordezkari bat, gaitasun osoa duena.

Adingabe bat edo bere gurasoak elkarte bateko partaide izateak adingabearen garapen integrala oztopatzen edo kaltetzen duenean, edozein interesatuk, pertsona fisikok nahiz juridikok, edo erakunde publikok, Fiskaltzara jo ahal izango du, hark beharrezkoak iruditzen zaizkion babes-neurri juridikoak abiaraz ditzan.

5.- 1/1993 LEGEA, OTSAILAREN 19KOA, EUSKAL ESKOLA PUBLIKOARI BURUZKOA

44. artikulua

1. Eskola osatzen duten talde guztien parte hartzea dakarten bide guztiak bultzatuko ditu hezkuntza-administrazioak, laguntza-ekintzen bitartez.
2. Bereziki gurasoen eta ikasleen elkarteak sortzea eta elkarteon jarduera bultzatuko da eta baita elkarte horien federakunde eta konfederakundeena ere, honako hauen bitartez:
 - a. Berauek sendotzeko eta garatzeko finantzabideak finkatuz.
 - b. Guraso-elkarteetako gurasoen etengabeko prestakuntza eta gurasoek aitortuta dituzten egitekoak betetzeko behar duten laguntza teknikoa emanez.
 - c. Ikastetxeetan guraso- eta ikasle-elkarteen presentzia bultzatuz, araudi bidez erabakitzen denaren arabera.
3. Hezkuntza-zerbitzuaren kalitatean eragin zuzena izan dezaten, atal hau garatzeko araei eta izaera orokorreko erabakiei buruzko iritzia eskatuko die hezkuntza-administrazioak federakunde eta konfederakundeei.

6.- 2/2006 LEGE ORGANIKOA, MAIATZAREN 3KOA, HEZKUNTZARENA

HOGETA HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. Ikasleen datu pertsonalak

1. Ikastetxeek beren hezkuntza-jarduera gauzatzeko beharrezkoak dituzten ikasleen datu pertsonalak jaso ahal izango dituzte. Datu horiek izan daitezke familia- eta gizarte-jatorri eta -giroa, ezaugarri edo baldintza pertsonalak, eskolatzearen garapena eta emaitzak, bai eta ikasleen hezkuntzarako eta orientaziorako jakin beharrezkoak diren gainerako alderdi guztiak ere.
2. Guraso edo tutoreek eta ikasleek ere lagundu egin behar dute artikulua honetan aipatutako informazioa biltzen. Ikasle bat ikastetxe batean hasteak berekin dakar ikaslearen datuak tratatzeko baimena, eta, hala balitz, lehen eskolaturik egon den ikastetxeko datuak ematea, datuak babesteko legeriak diotenaren barruan. Nolanahi ere, atal honetan aipatutako informazioa irakaskuntzarako eta orientaziorako beharrezkoa dena bakarrik izango da, eta, baimenik ezean, ezingo da erabili hezkuntza-helburuetarako ez bada.
3. Ikasleen datuak tratatzerakoan, haien segurtasuna eta konfidentziasuna bermatzen duten arau teknikoak eta antolakuntzakoak erabiliko dira. Irakasleek eta gainerako langileek, beren jardunean ari direla, adingabeen edo haien familien ohoreari eta intimitateari eragiten dieten datu pertsonal eta familiarren berri dutenean, isilpean gorde beharko dituzte.
4. Hezkuntza-sistamarako beharrezkoak diren datuak ematea, baita erreserbatuak direnak ere, ahal dela bide telematikoaz egingo da, datu pertsonalak babesteari buruzko legeriaren mende egongo da, eta Gobernuak gutxieneko baldintzak adostuko ditu Autonomia Erkidegoekin, Hezkuntza Arloko Batzarraren baitan.

7.- 5/2000 LEGE ORGANIKOA, URTARRILAREN 12KOA, ADINGABEEN ZIGOR-ERANTZUKIZUNA ARAUTZEKOA

16. artikulua. Espedientea hastea

2. Ustez adingabe batek egin eta aurreko atalean adierazitako gertaeraren baten berri dakienak Fiskaltzari jakinarazi beharko dio, eta hark salaketa izapidetzeko onartuko du edo ez,

gertatutakoak, zantzuen arabera, delituzkoak diren ala ez kontuan hartuta; helarazi zaizkion piezak, dokumentuak eta gauzak gordeko ditu, eta, kasua balitz, egokiak iruditzen zaizkion diligentziak egingo ditu gertatu dena eta adingabeak izan duen erantzukizuna egiaztatzeko, eta, gertatu dena delitu ez denean edo egile jakinik ez dagoenean, jarduketak artxibatzea erabaki dezake. Salaketari buruzko ebazpena jakinarazi beharko zaie salaketa jarri dutenei.

8.- 10/1982 LEGEA, AZAROAREN 24KOA, EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO OINARRIZKOA

5. artikulua

1. Euskadiko herritar guztiek dute hizkuntza ofizialak jakiteko eta erabiltzeko eskubidea, bai ahoz eta bai idatziz.

2. Euskadiko herritarrei honako funtsezko hizkuntza-eskubide hauek aitortzen zaizkie:

- a. Administrazioarekin edota Autonomia Erkidegoan kokatutako edozein erakunderekin edo entitaterekin harremanak euskaraz zein gaztelaniaz izateko eskubidea, ahoz nahiz idatziz.
- b. Irakaskuntza hizkuntza ofizial biotan jasotzeko eskubidea.
- c. Aldizkariak eta irrati-telebistetako eta beste hedabideetako emanaldiak euskaraz jasotzeko eskubidea.
- d. Lanbide-jarduerak, langintza, politikagintza eta sindikatu-jarduera euskaraz egiteko eskubidea.
- e. Edozein bilkuratan euskaraz mintzatzeko eskubidea.

3. Herri-agintek eskubide hauen erabilera ziurtatuko dute Autonomia Erkidegoaren lurraldean, eraginkorrek eta benetakoak izan daitezen.

6. artikulua

1. Herritar guztiei aitortzen zaie, Autonomia Erkidegoaren lurraldean, herri-administrazioarekiko harremanetan euskara zein gaztelania erabiltzeko eskubidea, eta beren aukerako hizkuntza ofizialean hartuak izatekoa.

Horretarako, neurri egokiak hartuko dira eta beharrezko baliabideak bideratuko, eskubide hori arian-arian gauzatu dadin bermatzeko.

2. Pertsona batek baino gehiagok esku hartzen duen espediente edo prozeduretan, alde biek adostasunez erabakitzen duten hizkuntza erabiliko dute herri-agintek.

9.- ZIGOR-KODEA

156. artikulua

Bi gurasoek izango dute guraso-ahala, edo bietako batek, besteak beren-beregi emandako baimenarekin. Baliozko ekintzak izango dira bietako batek gizarte-ohituen arabera eta zirkunstantzien arabera eginak, edo premia larrizko egoeretan eginak.

Desadostasunik balego, bietako edozeinek jo dezake Epailearengana, eta hark, biei entzun ondoren, bai eta semeari/alabari ere nahiko zentzu baleuka, eta, edozein kasutan, hamabi urtez gorakoa balitz, aitari edo amari emango dio erabakitze ahalmena, ondoren errekurtoa jartzeko aukerarik gabe. Desadostasunak errepikatuko balira edo guraso-ahala larri oztopatzen duen beste edozein arrazoi balego, gurasoetako bati osorik edo hein batean eman ahal izango

dio, edo bere funtzioak bien artean banatu. Neurri honek finkatutako epean izango du indarraldia, inoiz ez bi urtetik gorakoa.

Aurreko paragrafoetako suposamenduetan, fede oneko hirugarrenei dagokionez, uste izango da guraso bakoitza bestearen baimenarekin baliatzen dela guraso-ahalaren ohiko jardunaz.

Gurasoetako baten hutsunea, absentzia, ezgaitasuna edo ezintasuna balego, besteak bakarrik edukiko du guraso-ahala.

Gurasoak zein bere aldetik bizi badira, seme-alabarekin bizi denak edukiko du guraso-ahala. Nolanahi ere, Epaileak, beste gurasoak arrazoiturik eskatuz gero, eta seme-alabaren onerako, eskatzaileari guraso-ahala eman diezaioke beste gurasoarekin batera jardun dezan, edo jarduera horren funtzioak bana ditzake aitaren eta amaren artean.

10.- HERRI-ADMINISTRAZIOEN ARAUBIDE JURIDIKOARI ETA ADMINISTRAZIO-PROZEDURA ERKIDEARI BURUZKO LEGEA. 30/92 Legea

III. kapitulua. Abstentzia eta ezespina

28. artikulua. Abstentzia

1. Artikulu honen hurrengo zenbakian aipatzen diren gorabeheretako bat gertatzen bada administrazioaren mendeko agintari eta langileengan, prozeduran esku hartzetik abstenitu behar dute eta beren gertuko nagusiari jakinarazi, eta hark ebatziko du.

2. Abstenitzeko arrazoiak dira honako hauek:

- a. Interes pertsonala edukitzea dena delako arazoan edo hartan eragina eduki dezakeen beste arazo baten ebazpenean, interesatutako sozietate edo erakunde bateko administratzailea izatea, edo interesaturen batekin auzigaia edukitzea.
- b. Laugarren graduko odolkidetasuna edo bigarren graduko kidetasuna edukitzea interesaturen batekin, interesatutako erakundeen edo sozietateen administratzaileekin, eta prozeduran esku hartzen duten aholkulari, legezko ordezkari edo mandatariekin, bai eta horiekin elkaturik egotea ere aholkularitzarako, ordezkaritzarako edo mandaturako.
- c. Adiskidetasun mina edo etsaigo nabarmena edukitzea aurreko atalean aipatutako pertsonaren batekin.
- d. Peritu edo lekuko gisa esku hartu izana prozeduran.
- e. Arazoan zuzenean interesatutako pertsona natural edo juridiko batekin zerbitzu-harremana edukitzea, edo hari azken bi urteetan edonolako zerbitzu profesionalak eskaini izana edozein inguruabar edo lekutan.

3. Abstenitzeko arrazoiak izan arren Herri Administrazioaren zerbitzuko agintariak eta langileak jardun izanak ez du nahitaez esan nahi esku hartu duten ekitaldiak baliogabeak direnik.

4. Goiko organoek, inguruabar horietako batean dauden pertsonen agindu ahal izango diete espedientean esku hartzetik abstenitzeko.

5. Egoki denean ez abstenitzeak erantzukizuna ekarriko du.

29. artikulua. Ezespina

1. Aurreko artikuluan aurreikusitako kasuetan ezespina aurkeztu ahal izango da, prozedura izapidetzeko edozein unetan.

2. Ezespena idatziz egingo da, arrazoia edo arrazoiak adieraziz.
3. Hurrengo egunean, ezetsiak gainean duen nagusiari jakinaraziko dio arrazoi hori betetzen den ala ez. Hala bada, berehala ordezkatzeari erabaki dezake nagusiak.
4. Ezetsiak errekusazioaren arrazoia gezurtatzen badu, agintariak hiru egunen epean ebatziko du, egoki iruditzen zaizkion txostenak eta egiaztapenak burutu ostean.
5. Ezingo da errekurtsorik jarri hartutako ebazpenen kontra, ezespena alegatzeko kalterik gabe, prozeduraren amaierako ekitaldiaren kontrako errekurtsioa jartzerakoan.